



300.
zenbakia

Arrasate

P R E S S

1995eko
Abenduak 15

KULTURA
Sarasua
anaien "Fauna
txiki bat" diskoa

KIROLAK
Santamas
Krossa
igandean



Umezaintza

Haur eskolaren
zilar ezteiak

ARRASATE PRESen gorabeherak
**GEHIGARRI
BEREZIA**

ALTZARIAK Berango

5 URTEKO GARANTIAZ

SUKALDERAKO EKIPAMENDU OSOA



- Bainu altzariak
- Armairu enpotratuak

Gainera, orain, Berangon erositako altzariak doan lor ditzakezu!

ERAKUSKETA

Legarre Pabilioia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 92

ENPRESA BERRI BAT JAIO DA

- Egiturarik arinena, teknologiarik modernoena; 95ko otsailean sortua.
- Arrasaten berehalako garraioetan giza talderik profesionalena; 11 urteko esperientzia.

EZ OHIKOA

Segurua, ona eta gaurkoa. Berehalako garraioa eremu guztietan, osoa eta muga barik.



Bizkaia Etorbidea, 16 behea
20.500 ARRASATE
79 92 77

Zenbakiak mintzagai: 300eko marka hautsi du Arrasate Presse

Irakurri berri dudan liburuen azken orrialdean honela jartzen du: "Liburu hau 1995eko urriaren 3an inprimitu da, garamond letra motak erabiliz". Eta egia esan, gure kulturaren zein besteetan ere zenbakiak nonahi agertzen dira eta erabili ere funtzio askotarako erabiltzen dira. Bernardo Atxagak, adibidez, "Lezio berri bat ostrukari buruz" liburuskatu honela esaten digu: "Izan ere orduko 60 kilometro harrapatzen ditu ostruka batek", eta liburuskatu beraren beste toki batean, berriz, "Ostrukak 7 milioi urte daramatza luraren gainean". Zenbakiaren kontu honekin jarraituz, Gabriel Arestik "Harrizko herri hau" liburuan honela dio "Gaurko Gomorra" izeneko poemari: "Hamar gizon prestu gehiegi da Uribe baterako", beste poema bati, berriz, izenburu hau jarri dio: "Somorrostroko zazpi kontzeju", eta honela dio poemari: "Orain artean/euskal herrietan,/Abantotik Eskiulara,/ hiru eta lau/ zazpi/ izan ohi izan dira(...). Anjel Lertxundik ere "Hamaseigarrenean aidanez" izenburua jarri zion nobela bati.

Ipuin tradizionalak gogora ekartzen baditugu, 3 zenbakiaren maiztasunaz ohartuko gara, 3 baitziren "Hiru txerrixak"; hiru Mari onari eskatutako desioak; hiru urmaelean bizi ziren arrainak; hiru ziren "Hiru anai umezurtzak" eta horrela beste asko. Gorka Trintxerpek, berriz, bost zenbakiari zuzendutako poema bat du: "Bost/ zenbaki gaixo bat/ nortasunik ez duena/hamarren erdia delako/ hamarreko sistema metrikoa/ erabiltzen dugulako./

Beste hainbeste gauza bezala/ nortasunik gabe geldituak/ kondairaren/ aldapatxo batean". Baina badira bost zenbaki bako nortasun handiagoa duten zenbakiak ere, hamaika zenbakiak, adibidez. Denok dakigu "hamaika aldiz errepikatu nion" esatean, behin eta berriro esan niola adierazi nahi dela. Gauza bera gertatzen da mila zenbakiarekin: "mila kilo zorion" abestiak dioen bezala, ugari, asko, adierazi nahi du. Bi zenbaki hauek 11 eta 1.000 ez dira ugaritasuna adierazten duten bakarrak, Bibliari, adibidez, honela adierazten da amaigabetasunaren kontzeptua: "Jauna, senide batek bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz? Zazpi aldiz ez, zazpi milatan zazpi aldiz". Bibliarekin jarraituz, maiz errepikatzen den beste zenbakiak 12a dugu: 12 ziren tribuak, 12 apostoluak, 12 Egiptoko izurriteak, eta abar. Beraz, badirudi 12a zela zenbaki perfektua. Quevedok, idazle espainiarrak ere, sudurrez osaturiko 12 tribuei eskeintzen die bere poema. Baina oraingo honetan erabiliko dugun zenbakiak ez da ez 3a, ez 7a, ez 60a, ez eta 11 ere, 300a baizik, zeren eta Arrasate Presseko ale honek marka hautsi baitu, eta berarekin batera arrasatear irakurle zintzoak, zeren 300 alditan izan baitu Arrasate Press irakurtzeko aukera eta hau zenbakiak direla medio baino ezin hobeto adierazi. Beraz, 300 mila zorion arrasatear guztioi!

MATILDE SAINZ OSINAGA

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Memesa

79 42 22




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Laguntzaileak: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Mairder Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rata mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Ixe-Ixa komiki taldea. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iriztien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana

•••••

Benetako Euskal Eskola Publikoa

Irakaslea bere betiko leloa-
rekin ari da:

- Bla, bla...

Bitartean azkenengo ila-
ran:

- Hi, Mikel, konturatu al
hain egin diguten putadaz?

- Ez nok konturatuko ba!
Halako liburu potolua eta dana
gazteleraz!

- Ba enterau nok, ez dela
gure arazoa bakarrik, alboko
gelako Patxik ere gai batzuta-
tako materialak gaztelania
hutsean dituela eta euska-
razko material batzuk berriz,
Euskaltzaindiak ere ulertuko
ez litzuzkela!

- Lehen azterketak kostata
gainditzen giñuztan eta oin
berriz jesukristoren milagro-
etan sinesten hasi beharko
gaittuk, bestela...

Hau izan da azken aste-
tako gai nagusia ikasle asko-
ren ahotan. Euskararen gora-
behera hauek ikusita, larritzen
hasiak gara Bergarako Ipin-
tza Institutuko hainbat ikas-
le. BBBk jubilazioa harturik,
HSAOL (LOGSE) berria sar-
tu zaigu Institutuan. Orain
dela... urte BBB sartu zene-
an, gu gaur egun aurkitzen
garen arazo berarekin topatu
ziren garai hartako ikasleak;
hau da, euskaraz ikasteko
material falta. Urteen pode-
rioz, ikasle, irakasle eta hain-
bat talderen laguntzaz arazoa
konponduz joan zen. Orain sis-
tema berri bat ezarri digute-
larik euskal irakaskuntzak
atzera pauso nabarmen bat
eman du, euskerazko materiala
berriz ere faltan dugularik.

Gobernuak honen aurre-
an "paso" egiten du eta guk
berriz "hor dago"-a luzatzen
diogu.

Eusko Jaurlaritzak Euskal
Hezkuntzari ematen dizkion
dirulaguntza eskasak ikusi-
rik, negarrari eman beharre-
an lanari ekin diogu.

Horrela ba, benetan Eus-
kalduna sentitzen bazara eta

euskara bultzatu nahi badu-
zu jar zaitez gurekin harre-
manetan.

Helbidea: Ipintza Institu-
tua, Boni Laskurain 19, Ber-
gara (Gipuzkoa) noa. (943)
76 31 42

**EGOITZ UNAMUNO,
280 IKASLE ETA
IRAKASLEREN IZENEAN**

•••••

Zerriak

Arrasateko kaleetan "zerri
guztiei iristen zaie bere
San Martina" esaldia zera-
maten eskela itxurako idazki
batzuk azaldu ondoren ima-
jinatzen dut J.M. Loiti eta bere
ingurukoak jasaten ari diren
une depresiboa. Era berean,
pentsatzen dut Atutxa gene-
ralak zuzentzen duen Barne
sailak iraindutakoari jarriko
zizkiola dagoeneko txakur
pare bat -zipaioak esan nahi
dut- txikiteo orduetan judeo-
masoniar-intoleranteen tal-
deko terroristaren bati torti-
lla pintxo bat burura botatzea
akordatzen bazaio ere.

Hileta iragarkia azaldu
zenetik, salaketa komunika-
tuan euren sinadura jartzeko
egindako lasterketak benetan
patetikoak izan dira betiko
salatzaileen aldetik. Orain
egun batzuk presoak bisita-
tzera joateko delitua egin
zuten familiartekoen autobus

300 mila esker Arrasate!

Borobil horietakoa eta handi samarra 300 zenbakia, zuen
eta gure artean lortutakoa. Eskerrak eman nahian Aritz Etxe-
barriak egindako egutegia eskaintzen dizuegu. Zorionak!

Bestalde esan Zaldibarko informaziorik ez duzuela zen-
baki honetan, ez zen eta partidurik jokatu joan den astebu-
ruan.

Zuzenketa

Joan den asteko 2.000koak ez ziren faltsoak, berriak
aldiz. Informazio okerra eman ziguten eta guk horrela zabal-
du. Barkatu arazoren bat izan baduzue.

bat asaltora hartu eta apurtzen
zutenean; zuek diseinatutako
gar-tzeletan herri honetako
hainbat semek hiltzerainoko
gose-greba burutzen ari dire-
nean; zuek sortutako GALEk
erahil zuen azkenak botatako
odolaz zikindutako eskuak
garbitzeko astirik eduki ez
duzuenen; zuek agindutako
poliziaren azken kargaren
ondorioz zauritutakoak orain-
dik ospitalean daudenean;
azken torturatua oraindik zuek
defendatzen dituzuen kuar-
te-lilloetan dagoenean... panfle-
to bategatik horrelako zirkoa
montatzen duzue? Serioak izan
gaitezen! Zer uste duzue, inpu-
nitatea beti lagun izango duze-
la? Ba ikusi, norbaitek kon-
trakoa pentsatzen du.

Behar bada horrek jartzen
zaituzte urduri. Baina zuen
mahaian bazkaltzen ez dute-
nen aurkako terrore politika-
ren partaide izatea erabaki
zenutenean, norbaitek esan
behar zizuen hartzen ari zine-
ten erantzukizuna. Gerra hone-
tan nor bere ekitzen jabe da.
Zuenak, nahiz eta epaileek
egiten dituzuen erahilketak
ezkutatu edo zuen kazetariak
egunero aurpegia garbitu, his-
toriara ez dira espero duzuen
moduan pasatuko. Une hone-
tan, idazten ari naizela, Gau-
txori laguna, 30 eguneko gose-
grebaren ondorioz ospitalean
sartu dutela esan didate; bes-
te lagun bat, Txikito, aste hone-
tan bigarrenoz jipoitu dute-
la - zer nolako balentria eta
ekintza adoretsua zuen gar-
tzeleroen, 30 eguneko gose-

grebaren ondoren hiltzear
dagoen bat kolpatzea; Kan-
to, Agirre eta Garratz exter-
minio taktika jasaten ari dire-
la. Baina aitzarekin egin
duzue topo. Gorrotoa beste-
rik ez duzue sortzen, lehen-
go edo beranduago zuen gain
eroriko den gorrotoa, bar-
katzen ez duena, zuen zital-
keriari erantzun zuzena ema-
nez.

Hortaz, zer esan zuei?
Hemen eta orain denek daki-
te: errefracu bat paskin baten
jasotzea -hiletakoa izanda ere-
herriko errefracuen sorta
handitzea da, beste batzuen
arte, zerriei buruzko aipa-
tutako hori jasotzen da ber-
tan. Zergatik horrelako eskan-
daloa? Utzi martiriarena egi-
teari, martirizatzailak zuek
zarete eta.

Nik hemendik zerrien izu-
ritea lau haizetara zabaltze-
aren aldeko apostua egingo
nuke. Ez gehiago eta ez gu-
txiago. Zerri gehiegi Euskal
Herrian!

**PAKO ROBLES,
PRESO POLITIKOA**

•••••


Eskerrak eman ez

HIES Ekimenak eskerrak
eman nahi die Tunantes
del Norte, Al-Andalus eta
Emakumeen Asanbladari
Elkarte honi eman dioten
laguntzatik. Era berean
eskerrak eman nahi die Arra-
sateko dendei emandako
dirulaguntzetatik. Bestetik
Batzen-en bidez Alejandro
Altuna eta Joma enpresak
eskaintako dirulaguntza ere
eskertu nahi dugu, eta apro-
betxatu Arrasateko herriari
eta bere Udalarri gure esker
ona adierazteko, herrian egin
dugun lana onartuz eskaini
dugun plaka dela eta.

Eskerrak asko denontzat.


HIES Ekimena

Zer iruditzen zaizu Arrasate Press?



**Zigor Oruna
Langabezian
(26 urte)**

Herrirako oso ondo dago-ela. Gure eta hemengo gauzak jartzen ditu eta gustokoa daukat.



**Seberino de Castro
Langilea
(44 urte)**

Herrian gertatzen diren gauzak ekartzen ditu eta horrela jendea jakinean egon daiteke. Gero eta jende gehiagok irakurtzen duela dirudi.




**Unai Baena
Ikaslea
(17 urte)**

Ondo iruditzen zait, batez ere Zaldibarko txapeiketa agertzen delako. Futbola gustatzen zait. Arrasateko gauzak nola doazen eta herriari buruz dena jakiteko ondo dago.



**Elisa Lazpiur
Jubilatua
(72 urte)**

Nik neuk nahiko nuke bietara ipintzea, bai euskaraz eta bai erderaz. Ni euskalduna jaio, beti euskalduna eta sarritan ez dut euskeraz asko ulertzen.



**Felix Arriaran
Tabernaria
(38 urte)**

Oso ondo dago. Nahikoa da ez? ba sinpatikoa delako, herriko gauzak ekartzen dituelako, eta oso labur, motzean irakurtzen delako.




**M^a Teresa Egidazu
Etxekoandrea
(44 urte)**

Gauza asko ekartzen du irakurtzeko. Nik dena irakurtzen dut, hasieratik azkenaraino. Oso ondo dago, pentsatzen dut honekin aurrera egin behar dela.



**Tania Mendez
Ikaslea
(14 urte)**

Ondo dago, ez dakit. Behintzat jakiten dugu zer gauza pasatzen diren hemen. Zerbait interesgarria ikusten badut irakurtzen dut: batzutan agertzen diren erreportaiak ere.



**Iñaki Urbina
Pentsioduna
(39 urte)**

Ondo dago, gustatzen zait, herrikoa delako eta herriko gauzak ekartzen dituelako. Dena gustatzen zait, baina horrela berezi berezi ezer ez.

**ANBOTOSTE
TABERNA**

- EGUNEKO MENUA
- PLATER KONBINATUAK
- ARRATSALDEKO 4ETAN ETA GAUEKO 10ETAN BIDEO-FILMEAK

**ASTEBURUTAN
GOIZEKO 6ETATIK ZABALIK!**

LARREA PLAZA, 2 BEHEA
TFNOA: 79 68 30 ARRASATE

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETAK

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguualatorria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola78 71 57

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaitzaingoa
 Oñati78 08 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 78 44
 79 73 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 15
 Egunez eta gauez: Camacho. Bergara.
 10ak arte: Corcuera. Musakola.

Larunbata 16
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Igandea 17
 Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

Astelehena 18
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Asteartea 19
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Asteazkena 20
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Osteguna 21
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

15 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Nadie hablará de nosotros cuando hayamos muerto" 7etan eta 10etan.
- **GABON KONTZERTUA ARRASATE MUSIKALEN**
 Arrasate Musikalek Gabon kontzertua eskainiko du Arrasate Musikaleko areto nagusian arratsaldeko 6etan.
- **TRIKITILARI ESKOLAREN BATZAR NAGUSIA**
 Lehen deialdia arratsaldeko 7etan eta bigarrena 7.15etan. Trikitilari eskola-ko lokalean. Ondoren trikitipoteoa eta gaueko 9.30etan Eskola Politeknikoko jangelan afaria.



AZOKA ALTERNATIBOA GAZTETXEAN

Gaztetzokoeak II. merkatu alternatiboa antolatu dute Santamasetarako. Arropa, altzariak, jostailuak, artelanak... izango dira. Abenduaren 16an eguerdiko 12etan furgonetarekin pasatuko dira Zigarrola, San Andres, Uribe Auzoa eta Erdiko kaletik materiala jasotzeko. Oharra: artisauek interesatuak deitu 79 53 57 zenbakira 10etatik aurrera.

16 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Una pandilla de pillos" 5etan.
 "Nadie hablará de nosotros cuando hayamos muerto" 7.30etan eta 10etan.
- **SANTAMASETAKO EKINTZAK**
 Goizeko 9etan Euskadiko karate txapelketa Iturrieko kiroldegian. 10etan Santamas XVI. Pilota txapelketako finalak. 5etan Trakatrak Trup taldearekin "Mal mal... malabar" kale animazioa herriko plazan.
- **UMEZAINZAKO 25. URTEURRENA**
 Umeentzat jaialdia eguerdiko 12etatik 2etara. 2etan bazkaria Eskola politeknikoko jangelan.

- **KIROLDEGIKO BILERA**
 Musakola eta Iturrieko frontoiak, futbol, tenis eta Squash-heko kantzak alokatzeko interesatuek bilera izango dute goizeko 11etan Musakolako bulegoan.

- **URIBARRI ELKARTEAREN XXV. URTEURRENA**
 Goizeko 10etan pilota partiduak Iturripen. 12etan Meza. 12.45etan luntxa Elkartearen egoitzan. 13.30etan txikiteoa. 7etan Mus txapelketa. 20.30etan txikiteoa. 9etan afaria.

- **SANTA LUZIA JAIK GALARTZAN**
 Aretxabaletako Galartza auzoan arratsaldeko 6etan meza. Ondoren luntxa auzokoentzat.

- **FAUNA TXIKI BAT BERTSO BERRITAN**
 Sarasua anaiekin fauna txiki bat bertso berritan diskoaren aurkezpena eta Sorotan Bele taldearen kontzertua, gaueko 10.30etan Amaia antzokian.

17 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Una pandilla de pillos" 5etan.
 "Alerta máxima II" 7.30etan eta 10etan.
- **SANTAMAS JAIETAKO EKINTZAK**
 Goizeko 11etan Santamas XVII. krosa herriko kaleetan. Eguerdiko ordubatean V. Binakako arin-arin eta Fandango txapelketa Seber Altube plazan. 7etatik aurrera "Eguzki" taldearekin dantzaldia Seber Altube plazan.
- **SANTA LUZIA JAIK GALARTZAN**
 Aretxabaletako Galartza auzoan. Goizeko 11.30etan kampaio jotzea eta etxaleru jaurtiketa. 12.30etan meza eta ondoren luntxa. 1.30etan trikitilarien emanaldia.

ELKARBIZITZARI BURUZKO IHARDUNALDIAK

65 urtetik gorako inork ez ditzan Gabonak bakardadean igaro, 1995eko Gabonetako Elkarbizitzari buruzko ihardunaldiak antolatu ditu Foru Aldundiak. Programa honetan parte hartzeko 65 urte izan behar dute. Bakarrik bizi diren senar emazteak ere joateko aukera daukate. Pentsioaren kopuaren arabera izango da prezioa. Udalaren Gizarte Zerbitzuetarako sailean bideratuko dira eskaerak eta epea datorren astelehenan, hilak 18, eguerdiko ordubatean bukatuko da. Informazio gehiago izateko 79 09 00 telefonora deitu.

18 ASTELEHENA

• **ZINEA**
 "Alerta máxima II" 7etan eta 9.30etan.

19 ASTEARTEA

• **ZINEA**
 "Alerta máxima II" 7etan eta 9.30etan.

• **HITZALDIA**
 Gaia: "Intsumisioa, kode penal berria". Hizlariak: Alvaro Marcet eta Ramon Lizarraga. Eskoriatzako kultur etxean, arratsaldeko 7.30etan.

20 ASTEAZKENA

• **AEDko LEHIAKETEN SARI BANAKETA**
 AEDk antolatuta "Arrasate lehia-keta" eta "Jokin Zaitegi itzulpen laburren sariketa-ren" sari banaketa arratsaldeko 7etan Monterronen.

21 OSTEGUNA

• **AITA MENNI-KO GABON KONTZERTUA**
 Arrasate Musikalek Gabon kontzertua eskainiko du Aita Menni eritetxe psikiatrikoan arratsaldeko 5.30etan.

• **SANTAMAS JAIETAKO EKINTZAK**

Goizeko 11etan Euskal liburu eta disko azoka zabalduko da Seber Altube plazan. Azoka abenduaren 24ra arte egongo da zabalik. 5etan Tximax egunkariaren Txontxongilo emanaldia Herriko plazan. 7etan Ludotekan poesia emanaldia: Asier Serrano Olerkaria, Mikel Gorosabelek lagunduta. 7etan kalejira Kiliki eta Erraldoiekin. 7etan Santamasetako txerriaren aurkezpena eta zozketa-txartelen salmenta. 7etan saskibaloj partidua: Urbina Maltzaga eta Caja Cantabria aurrez aurre Iturripen. 7.30etan "Incanables" txarangarekin kalejira. Gaueko 11etan "Jose lu Anaiak" taldearekin dantzaldia Herriko plazan. 12ak aldera "Boston" taldearekin dantzaldia Herriko plazan eta 12ak aldera zezen suzkoa toki berdinean.



SANTAMAS JAIETAKO EKINTZAK

Abenduaren 15etik 24a arte Santamas jaietako ekintzak izango dira protagonista Arrasaten. Txapelketak, dantzaldiak, azokak, kirol ikuskizunak... denetik antolatu dute primerako jaiak pasatzeko.

EGUNKARIA JAIA

Egunkariaren jaira joateko autobusa antolatu du AEDk. Interesatuok AEDra jo izena emateko. AEDn ere jaialdirako txartelak salgai daude.

OLEO ETA ONTZI ERAKUSKETA

Urtarrilaren 7ra bitartean Gurutze Mujikaren margo eta ontzi erakusketa Aretxabaletako Arientza auzoko Mitarte Garai nekazalturismo etxean.

UMEZAINTZAK ANTOLATUTA ARGAZKI ERAKUSKETA

Umezaintzaren historia eta eboluzioa argazkietan erakusketa Monterronen abenduaren 18tik 24ra. Orduetgia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

KABALGATA KOMISIOKO OHARRA

Urtero bezala Errege kabalgata prestatzen ari dira eta horregatik jendearen laguntza behar dute. Hori dela eta, antortxero lanetan parte hartu nahi duten guztiei abenduaren 27an San Viator ikastetxeko jolastokira joateko deia egiten zaie.

PINTURA ERAKUSKETA HARRESIN

Conchita Zarraoaren pintura erakusketa Harresi aretoan abenduaren 15etik urtarrilaren 7a arte. Orduetgia: egunero 6etatik 8ak arte eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.

• **KONTZERTUA AMAIA ANTZOKIAN**

Letoniako orkestra eta Mondragon Abesbatzaren kontzertua: Fauréren Requiem eta Dvoráken Te Deuma. Arratsaldeko 7etan Amaia antzokian.

ALBOKA IKASTAROA

Urtarriletik apirilera larunbat goizetan alboka ikastaroa. Matrikula: 2.000 pta. eta 1.000 pta. ikasle eta langabetuentzat, materiala barne. Izena emateko epea zabalik Gazte Informaziorako Bulegoan.

Kontzertu jendetsua

1.200 lagun baino gehiago izan ziren abenduaren 6an Kirolegian egin zen kontzertuan. Antolatzaileek jende asko espero ez arren Etsaiak, Su Ta Gar eta Txusma taldeek entzule asko erakarri zuten. Txusma talde arrasatearrak debut ofiziala egin zuen.



Garrasi Isilaren kontzentrazioa

Madriilen hil zituzten sei lagunen aldeko kontzentrazio isila burutu zen asteartean herriko plazan. Garrasi isilak deituta 200 lagun inguru bildu ziren plazan, asteleheneko atentatuaren aurkako gaitzespena adierazi eta biktimen senitartekoei dolumina azaltzeko. Borobil bat osatu eta ohi moduan isilean egin zuten kontzentrazioa.

2.000koak egiazkoak

Espainiako Bankuak 2.000ko bilete berriak atera ditu, beraz bilete horiek ez dira faltsuak hasiera batean horrela uste bazen ere. Ertzantzaren eskariz, hainbat komunikabidetan bilete horiekin kontuz ibiltzeko eskatu zenez, jende asko hurbildu zen banketxeetara faltsuak zirela pentsatzen.

Kalitatea eta kantitatea akordeoi lehiaketan

Arrakasta handiz burutu ziren abenduaren 2tik 8ra Arrasaten ospatu ziren akordeoi lehiaketak. Guztira 380 soinu-jolek parte hartu zuten Gipuzkoa-ko eta Nazioarteko lehiaketa-

tetan eta Gipuzkoako jaialdian. Partehartzaileek maila bikaina azaldu zuten eta emanaldietara ere entzule ugari hurbildu zen. "Arrasate Hiria" Nazioarteko lehiaketako lehen saria Philippe Bourlois frantziarrak eraman zuen. SUDC-ek soinu-jole jatorrenari ematen dion saria, berriz, Sergei Voitenko errusiarrak.

Sozialisten erantzuna

Autobus geltokien auzia dela eta, idatzi gogor bat kaleratuz erantzun zion Arrasateko alderdi sozialistak Ezker Batuari. Joan den astean sozialistak atera zuten idatzian esaten denez, EBkoek ez dute udal gestioan esperientziarik eta gauzak ez dituzte behar

bezala egin. Sozialisten arabera, Diputazioaren proposamenaren gainean alegazioak egiteko aukera izan zuen udal gobernu taldeak baina ez zen alegaziorik egin. Idatziaren bukaeran aipatzen da, EBaren helburua alderdi sozialistari botoak kentzea dela bakarrik.

JAIOTZAK

- Malen Ruiz de Azua Larrinaga. Azaroaren 17an.
- Ane Errarte Yarza. 23an.
- Lide Zubiaga Silvar. 30ean.
- Jon Elkoro de Tena. 28an.
- Julene Agirre Aranburu. Abenduaren 1ean.
- Sara Fuentes Altuna. 3an.
- Gorka Llodio Bergaretxe. 3an.
- Asier Zugasti Zubia. 5ean.
- Iban Mollano Martin. 5ean.

EZKONTZAK

- Jose Ignacio Izazelaia Madinabeitia eta Jone Miren Ugarte Arregi. Azaroaren 18an. Elizaz.
- Jose Ignacio Bermejo Castaño eta Maria del Pilar Segovia Sagasta. Abenduaren 2an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Leonor Berezibar Errasti. Abenduaren 1ean. 90 urte.
- Asunción Letona Arrieta. 6an. 78 urte.



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE



Plenoan aztergai izango da Gipuzkoako Ertzaintzak egindako proposamena.

Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko elkarlana aztergai

Arrasateko Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren artean koordinazio batzordea sortzeko proposamena, aztergai izango da gaurko plenoan. Euskal Poliziaren legean jasotzen den egitasmoa Gipuzkoako Ertzaintzak egin du, eta asmoa bi aldeen arteko elkarlana bultzatzea da. Elkarlan hori aurrera eramateaz, Arrasate eta Aretxabaletako Alkate eta Udaltzain buruek eta Ertzaintzaren buruek osatutako batzordea arduratuko litzateke.

Ia seguru proposamena aurrera aterako da, HBk ezik gainontzeko alderdiek baiezkua emango dute eta. Xabier Zubizarreta,

HBko partaidearen berbetan, "Ertzaintzaren planteamendu orokorrekin ez gaude ados. Gure ustez Ertzaintzaren izateko modua ez da behar bezala garatu eta horregatik, gure desadostasuna azalduko dugu".

Gaurko plenoan bestalde, A-20 area dela eta dagoen auziari buruz ere hitzgingo da. Udalak Musakolan dagoen A-20a urbanizatu duela eta, 164 milioi eskatu dizkie toki horretan enpresaren bat duten jabeek. Enpresariak, berriz, ez dute ordaindu nahi eta Epaitegi Nagusira jo dute. Baliteke plenoan EAJ eta EAko zinegotziek auziari beste irtenbideren bat ematea proposatzea.

Oraingoz zentsura moziarik ez

Hirukoa osatzen duten alderdietako exekutibek, EAJK, PSE-EEK eta EAK, abenduaren 17rako zentsura mozia aurkeztea adostu bazuten ere, oraingoz horrelakorik ez da gauzatu.

"Ez dugu komentariorik egingo" adierazi dute Arrasateko EAko kideek HBri alkateza kentzeko helburua izango lukeen mozia ateratzeko asmoari buruz galdetzerakoan. Alderdi horretako exekutibak ere ez du argibiderik eman, astebukeraren kongresua egingo dutez burubelarri kongresuan murgilduta daude eta.

Mozioa aurrera ateraz gero alkateza lortuko lukeen J.M. Loitik, berriz, "mozioa aurkeztearen asmoa ez dago ahaztuta" erantzun du galdetzean.

Mankomunitateko ordezkariak

Deba Garaiko Mankomunitateko Batzorde Informatiboetan, Arrasateko Udalen ordezkariak zeintzuk izango diren jakinaraziko da gaurko plenoan.



Kalitate gorena leihoretan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



ARRASTRO Birziklaia



Erabilitako objetuen berreskurapena: altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinatikoak.
Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiiluak.

**BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK
PREZIO ONENEAN!!**

Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresnarik badaukazu dei egin **78 32 88** telefonora eta geuk batuko ditugu.

Gure ordutegia hurrengoa da:
Astehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara.
Larunbatetan, goizeko 11etatik 2etara.

Kalezarra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88



Proiektua aurrera eramateko 1.800.000 pezeta lortu nahi ditu Harremanek.

Bolivian garapen proiektu bat hasi du Harremanek

Harreman, Arrasateko Hirugarren Mundu taldeak, Boliviako Cochabamba hiriko auzo bat ur edatekoaz hornitzeko proiektua du eskuartean. Auzo horretako azpiegituran gabezia handiak daudenez, Harremanen asmoa hiru putzu eta kanalizazioa egitea da. Horrez gain, auzoan bizi diren boliviarrak ura gestionatzen ikastea lortu nahi dute. Putzuak egiteko obrak egiteko auzoko langileak kontratatuko dira.

Arrasateko taldeak orain arte beste talde batzuekin elkarlanean egin du lan, baina Boliviako proiektua bakarka eramango du aurrera. Proiektua dagoeneko hasi da eta 1.800.000 pezetako aurrekontua izango du. Dirutza hori

lortzeko, Harremanek kontu korronteak zabaldu ditu nahi duten arrasatearrek diruz lagun dezaten baina Udaletik ere jasoko du laguntzarik.

Orain arte, hirugarren munduko proiektuak diruz laguntzeko lehiaketak deitu izan ditu Udalak, baina aurten Arrasateko taldearen artean banatuko du dirua. 95erako 4 milioi pezeta aurrikusita daude eta atzo, ostegunez, erabaki behar zen diru hori zelan banatu. Aurten Harremanek eta Askapenak aurkeztu dituzte proiektuak eta baliteke bakoitzari 2 milioi ematea. Datorren astean, dirua banatu eta hitzarmena sinatuko du Udalak talde horiekin.

Garagartzako bidea konpontzen hasi

Asteazkenean hasi ziren Garagartzako bidea zabaldu eta konpontzeko lanak. Obrak Garagartzatik Arabako mugaraino egingo dira, zehazki bi kilometro inguru. 260 milioi gastatuko ditu Diputazioak bidea konpontzeko eta datorren urteko urrirako amaituta izango da.

Ezker Batuaren asanblada

Arrasateko EBak asanblada egin zuen atzo, ostegunean, HBrekin izandako elkarrizketen berri emateko euren jarraitzaile eta botoemaileei.

Legealdi honetarako programa finkatu nahiez bi gobernu kideek hainbat bileran izan dituzte, eta Ezker Batukoek botoemaileek harreman horien inguruan zer iritzi duten jakin nahi izan dute. Asanblan izandakoek, gainera, udal gobernuan jarraitu edo ez erabaki behar zuten atzo. HB eta EBaren arteko bilerak bide onetik joan dira eta zenbait puntutan ados jartzea lortu dute.

Gabonetarako egin ezazu betirako opari bat, eta...

Zuretzat beste opari bat lortu ahal izango duzu NAROKIn.

10.000 ptatik gorako erosketa egiten duzuenen artean urrezko gargantila eta eskuturrekoa zozketatuko dira.

Erdiko kale, 23
ARRASATE • Tfnoa: 79 20 47



*Etxe txukuna
txoko kuttuna*

Ehune

Ehunen ehun lan

Otalora, 22
Tfnoa: 77 11 48
ARRASATE



Kosmetika

*Lancaster
Guerlain
Elizabeth Arden*

*Promozio eta opari handiekin

Otarak prestatzen ditugu zure Gabon opariendako.

Iurrindegia perfumeria
ZARRAOA

- BIDAIAZKEKO ETA JAZTEKO POLTSAK
- BISUTERIA
- OPARIAK
- EDERTASUN KABINETEA
- SOLARIUMA

Kanpatorpea, 4 • Tfnoa: 79 12 19 • ARRASATE





LORAMENDI

Eskiatzeko
behar duzun
guztia!




OFERTAK ekipoetan. Zatoz eta jaso katalogo berria!

**Barruko erropatan
espezialistak**



**Gabon
Zoriontsuak!**

Erdiko Kale, 28 • ARRASATE • Tfnoa: 79 13 43





Agurtzane Ugalde *

Ondarroako barnetegikoa: eraso?

Azaroaren leian ondorengo hau agertu zen prentsan: "Ondarroako Barnetegiko ikasle batek eraso egin zion emakumezko ikaskide bati, hura bakarrik zegoela aprobetxatuz. Erasotzailea, emakumea lotan zegoela pentsatuz, bere aurrean masturbatu zen. Emakumeak eraso Barnetegian salatu zuen, eta ikasle eta irakasle arteko bilera-baten ondoren, erasotzailea kaleratzea erabaki zen."

Emakumeen Asanbladak beti salatu izan ditu emakumeok etxean, kalean, lantokian eta edonon jasaten ditugun erasoak, bai esparru zabalekoak eta baita Arrasatekoak bertakoak ere.

Kasu honetan ez dago zalantzan jartzerik aipatutako emakume horrek eraso sexual baten aurrean ikusi zuela bere burua; baina, gure ustez, Ondarroako Barnetegian gertatuta-

koa egoera ez-eroso edo jasangaitza baino ez zen izan eta ez eraso sexuala.

Gehiegikeria guztiak salatu beharrekoak direlakoan gaude, jakina: baina esku artean duguna ez da bortxaketa, tratu txar, ukitu edo antzekorik, baizik eta eszitazioaren sortzaile edo helburua izan nahi ez zuen emakume baten aurrean egindako masturbazioa. Gure ustez kontuan hartu beharrekoa da ekintza sexual bat eraso den ala ez epaitzeko orduan. Ez ditugu nahastu behar "gustatzen ez zaidana" edo "ez-eroso sentiarazten nauena" eta sexu-erasoa.

.....
"Sexu-erasoak gertatzen dira gizarte honek gizonik gizarajoenari ere emakumearen aurrean ematen dion botereagatik"

Egoera hau beste era batean konpon zitekeela uste dugu, egoera hori ez zitzaiola gusatzaten edo ez-eroso sentiarazten zuela esanez, adibidez. Agian beldurrak edo inpotentziak berak ez zioten utzi horrelakorik egiten.

Gure ustez oso garrantzitsua da gure sexualitatearekin eta berori bizi izateko moduarekin topo egiten dugunean ditugun beldur, mamu eta ezintasunez hitzegitea eta horiek onartzea. Emakumeok sexualki autoafirmatu beharra daukagu, gustatzen zaiguna eta gustatzen ez zaiguna esploratu, ezagutu eta jakin, sexudun izaki gisa eraikitzeko.

Sexu-erasoak, gure iritziz, ez dira besterik gabe gizonaren sexualitate biolentoa, errespetugabea eta neurrigabea delako gertatzen; gizarte honek gizonik gizarajoenari ere emakumearen aurrean ematen dion botereagatik direlakoan gaude.

Indarrez ezartzen zaiguna salatzea funtsezkoa da, bai geure burua eta bai emakumeen askatasun sexuala defendatzeko.

Gure independentzia eta gauzak aldatu zein erasoerik aurre egiteko dugun gaitasuna sendotu beharra daukagu. Gure burua bizitzaren arlo guztietan gizaki aktibo gisa jokatzeko ikusteko premia daukagu.

Bukatzeko, hausnarketa eta eztabaida serioa egiteko beharra dagoela azpimarratu nahi dugu, kasu honen eta antzekoen aurrean argi izan dezagun sexu-portaera jakin bat erasotzat hartu beharrekoa den ala ez jakiteko.

* EMAKUMEEN ASANBLADA

USTEAK USTE

ZAPATU GAU BAT

Igande goizean jaiki orduko bazkaria gertu. Eta ahots ezagun batek: "baña nun egoten zare holako orduetan etorteko?". Hori da misterioa hori. Apartekorik ez dauka ordea. Hara: afalostean lagunekin elkartu eta kalean gora eta behera, tabernaz taberna (ez da izango?). Poteoaren kultura deitu izan dio norbaitek. Berba, ezagunak agurtu, barre, edan (komunikabi-deetako erreportaiak ez dabiltz oso oker), dantza (gutxi, eta burrundaria bakalaua baino gehiago)... Ordu bi t'erdia aldera kalkuluak egin behar izaten dira azken tabernetara heltzearren. Gero, oraindik gogorik badago, txunda txunda diskotekara.

Zerbait ahaztu al dut? "Eta gaba guztia neskatzen atzetik..." dio kantuak. Horrelako zerbait ere izan behar. Burutik kendu ezin duzun neska edo mutil horrengana hurbiltzeko aukera ikusten da halakoetan. Askotan baina (eta kasuak kasu), asmoak asmo geratzen dira. Maritxu biharamu-nean etxera nindoala bertakoak ez ziren bi mutili honela entzun nien: "Zer, ondo?", eta besteak, "Ondo?, Aitxa...zegatik egin deustazu hain zatarrak!".

ANDER ETXEBARRIA

MILARIOY

**Taberna-jatetxea
Kafetegia**

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...


Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE



**Santamasetako karte-
la eta eskuzko progra-
ma gertu dago dagoe-
neko. Aurten zineak
100 urte bete dituela
eta, Marilyn Monroe
etorri zaigu Arrasatera
txerri emearen gorpu-
tzean sartuta. Zerekin geratzen
zarete? Benetako
Marilyn-en izterrak
hala Mondraueko
labeldun txerriaren
urdaiazpikoarekin?
Bigarrena nahiago
baduzue zozketarako
txartelak erosi!**

IZEN PROPIOAK

● Jose M^a Arizmendi-
rrietaren X. lehiaketaren
sari banaketa egin zen
azaroaren 27an. Irabazleak
honako hauek izan ziren. A
mailan lehen saria Almen
ikastolak jaso zuen "Kalez
kale irrintzia, gune eta une
oro arren tolerantzia
lemapean". Bigarrena
SFXabier ikastolak "BU"
lemapean eta hirugarrena
ere SF Xabier ikastolak
Arranpalu lanarekin. Sari
bereziak Almen ikastolak
eta Loiuko Lauro ikastolak
jaso zituzten. B mailan
lehen saria Loiuko Lauro
ikastolak "3A1" lanarekin.
Bigarrena ere Loiuko
ikastolara joan zen "3B2"
lemapean eta hirugarrena-
ren jabe Arrasateko San
Viator ikastola egin zen.
Sari bereziak "Contra el
borreguismo" lemapean
Gazteizko Santa Maria
Marianistetako eskolak
jaso zuen eta "3A4"
leloarekin Loiuko ikasto-
lak.

● **Pedro Bidaburu**, 46
urteko arrasatearra izango
da AUKEAko Zuzendari-
tza Batzordeko kide berria.
Bidaburu Igeriketa Taldeko
partaide da. Edurne
Madinabeitiaren orde-
z sartu da batzordean.

Pello Mertxan 10 urteko
arrasatearrak 100.000 pta.
irabazi du **Egunkariako
tonbolan**. Txitxinpe taber-
nan erosi zuen boletoa eta
zabaltzeaz bat diru kopuru
horren jabe zela ohartu zen.
Pellok oraindik ez daki zer
egingo duen diruarekin bai-
na seguruen aurrezki kutxan
sartuko du, zer erosi pent-
satu arte. Pellori 100.000 pta-
ko txekia Kaitin Allende
Egunkaria Tonbolako Arra-
sateko arduradunak eman



**Gutziz berriztutako
taberna salgai ezin
atenditzeagatik.
Tfnoa: 77 07 80**

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Zorionak Arrasate Press zure 300. alea betetzerakoan.

Hirurehun izan dira Arrasate Pressak gure buzoietan aurkitu ditugun ostiralak eta asko izan dira ere, horrela gertatu zedin erabilitako ilusioak.

Eguneroko jarduerak, ttukuntasunak, produktuarekiko sinesgarritasunak eta euskarazko komunikabideen hutsunea bete beharrak posible egin zuten eta dute gure asteko zita hau aldizkariarekin.

Herri ekimenaren ilusio eta lanak batetik eta administrazioaren baliabideak bestetik, biak elkarturik zabaldu zuten bidea.

Horregatik, oraindik ere ZORIONIK BEROENAK AEDko bazkideoi, Arrasateko Udalari, aldizkaria publizitateaz jazen duzuenoi, aldizkaria mamitu izan duzuen zuzendari, langile, kolaboratzaile eta banatzaileoi... eta zelan ez bada, zuri ere, euskarazko komunikabideen irakurleari.

AEDko Zuzendaritza Batzordea



ZAZPI URTEREN HISTORIA TXIKIA

Arrasate

P R E S S

300
pausuko
bidea,
ekinez
egindakoa.

ARRASATE
PRESS

**MONDRAGOEN KONTSUMO-
BULEGOA INDARREAN**

KAIKO ARRASATE

Arrasate herriko hiru jator da herriko hiru pertsona bakoitzak. ARRASATE PRESS, herriko hiru urteko historia bakoitzak berriro berrikuntzen du. Mondragoeko Bulegoa Indarrean, herriko hiru urteko historia bakoitzak berriro berrikuntzen du. Mondragoeko Bulegoa Indarrean, herriko hiru urteko historia bakoitzak berriro berrikuntzen du. Mondragoeko Bulegoa Indarrean, herriko hiru urteko historia bakoitzak berriro berrikuntzen du.

ARRASATE KIROIAK

Kontzultza kalea, 8 - ARRASATE - Tfn 794612

1. zenbakia

300
zenbakia

Arrasate

Umezaintza

300. zenbakia

Nola egiten da Arrasate Press?

Izenburuko galderari behin baino gehiagotan erantzun izan zaio. Dena dela, noiz behin-ka etortzen diren bisitari gehienek kezka nagusia hori izaten denez, 300. zenbaki hau aitzaki aproposa izan daiteke berriro prozesuaren berri emateko. Ez dadila azkena izan!

Imajina irakurle aste arrunt bat, astelehenean hasi beharrean ostegunean hasten dela; eguerdi aldean zehatz esateko. Ordu eta egun horretan egiten da Arrasate Presseko lehen bilera. Astekaria berriro inprintara eraman aurretik astebete dago lanerako. Hori da kontuan hartu beharreko lehen datua. Aipatutako epean, bakoitzak bere lana antolatu behar du aldizkaria osatzeko. Ezin hutsik egin, ez dago eta astebeteko epea luzatzerik. Bileraren helburua aldizkari berriaren hildo nagusiak ezartzea: erreportaia eta azala erabaki, nor elkarrizketatu, zein kolaborazio sartu, kirolean eta kulturatan zer aurrakusi daitekeen, inkestako galdera erabaki, egutegia begiratu zer dagoen jakiteko, berririen bat sor daitekeela antzematen den ikusi, txutxumutxurik izango den edo ez, zer nahia go? sailean nor sartu... labur esanda: aldizkariaren zatirik



Kazetariak, zuzendaria, publizistak,... Arrasate Presseko gaur egungo taldea, lehenago beste batzuk izan ziren.

handiena erabakita. Noraezean, presaka, ausart, edizioa itxi aurretik tabernako telefonoz kronika ematen eta inprobisatu beharrean aurkitzen den kazetariaren irudia pikutara irakurle! Kazetaritza eta abentura parekatzen dira askotan, lanbidearen alderdi erromantikoa erakutsi nahiean, baina gutxi dira ogibide honetan horrela dabilzkanak.

Beno irakurle, istoriora berriz ere. Hurrengo pausua lanaren banaketa. Finko finkoa ez da izaten, baina finko samarra bai: Txutxumutxuak eta kirolak Itxaroren ardura izaten dira. Maidar kulturako kontuez eta telebistakoez arduratzen da. Mariari aktua-


litateak sortzen dizkio burukomin handienak, asteko berrien ondoren ibili beharrrak. Elkarrizketaren eta erreportaiaren orrialdeek ez dute jaberik, txandaka egiten dira. Iritziak eskatzea, kolaboratzaileei hartutako konpromezua gogoraraztea, honi edo besteari esku bat botatzea, asteko martxari jarraitzea, asteko martxari jarraitzea, asteko martxari jarraitzea... zuzendariaren betebeharren zerrendan daude. Kazetarien lanari itxura dotorea ematea, lanerako generoa eskatzea, publizitate arduradunei pelmadatxoa ematea... maketatzailearen zereginak dira.

Lana banatuta ez dago askoz gehiago esan beharrik. Bakoitzak badaki zer egin eta

noizko bukatu. Lehenbailehen egitea izaten da onena, norbaitekin hitzegin ezin edo berririen batek huts egiten badu, irtenbidea aurkitzeko denbora egon dadin. Gainera kontuan hartu behar da, Arrasate Press-eko kazetariak aldizkarirako ezezik herriko telebistako informatibo eta programetan hainbat lan egin behar izaten dutela. Lanari neurri egokia hartzeko premia argiago beraz.

Mundu honetan sekula geldirik egoten ez den gauza bakarrenetarikoa denbora da irakurle. Egizu beste ahalegintxo bat eta imajina ezazu beste barik osteguna pasa dela eta ostiralaren zatirik handiena ere, denbora lasterketa eroan. Tarte horretan publizistek, Jasonek eta Albertok, asteko aldizkaria betetzeko ahaleginak egin dituzte eta kazetariak ekin diote lanari. Asteburuari ongiatorria eman aurretik, Mariani, ATB eta Arrasate Presseko asteburuko kazetari baka-rrari lana agindu behar: "atera itzazu argazki hau eta beste hura, eta eskaiozu telefono zenbakia beste hari". Horren ondoren, agur bati, agur besteari, ondo pasau aldamenekoari eta astelehenera arte jai.

Berez ederra da, baina artikulua honetarako gutxi balio du asteburuko martxak; hortaz kasurik ez irakurle. Astelehen goizean, eskaile-
rak poliki poliki igo ondoren, begi txikiko gorputz nagituak



Banatzaille barik ez dago aldizkaririk.

sartzen dira Frantziskotarren komentuko ataritik. Bero egin arren hotza dago erredakzioa. Egunkariak mahai gainean. Begiradatxo bat berriro errealitatearekin topo egiteko. Osteguneko bilerara itzuli izanaren sentsazioa burua kolpatuz, deiadarka.

Mesedez irakurle, beste behingoz kolpera ken itzazu egutegiko orrialdetxoak. Hori da, oso ondo! Ostegun goiza begien aurrean, aldizkariari azken ikutuak ematera. Hai-zea letxe pasa diren hiru egunetan, kazetariak, argazkiak atera, informazioa jaso, landu eta idatziz jarri dute; publizitez, bisita ugari egin ondoren, osatu dute behar den publizitate kopurua; maketatzaileak, bata eta bestearen lanei itxura dotorea eman die; zuzendariak guztia irakurri eta zuzenketak egin ditu. Osteguna goiz goiz jai-ki beharreko eguna izaten da, berandutuaz gero 9.30etatik aurrera telefonoa kexuka hasten da. Inprentakoak noski. Ahalik eta azkarren autoren bat abiatzen da inprentarantz. Aurrez, Goik aldizkari osoa disketea batean kopiatu du eta huraxe da inprentara erama-

ten dena. Informatikaren misterioak, paper bilakatzen den diskete metalikoa.

Hortik aurrerakoak bai presaka egiten direla irakurle. Imajina, aldizkaria ostegun goizean Gertu inprimategian egoten da, 24 ordu

beranduago AEDn, banatzaileen zain. Azkarra benetan inprimategiko prozesua. Hemendik eramandako disketea hango ordenagailuan sartzen da. Filmadora izeneko argazki makina handi baten antzerako traste batek,

disketea irakurri eta erretratoa ateratzen dio. Muntaia eginda erretratoaren negatiboa irteten da, fotolitoa. Fotolitoa tailerreko makinetara eraman eta han bihurtzen dute paper. 24 orduetan 32 orrialdeko 6.200 Arrasate Press. Ez da marka txarra, baina nahi izanez gero erraz gaudituko luketeena, Euskal Herriko herri aldizkari gehienak osteguna-ostirala tartean Gertun egiten dira eta.

Ut ezazu irakurle inprimategia eta itzul zaitez AEDra. Han utzi dituzu aste-ko aldizkariak. Egia esan AEDkoak izan dira hori egin dutenak. Neska-mutil finak, aldizkariak eramaten dituen furgonetako kaxen deskarga eurek egiten dute. Arratsaldean agertzen dira banatzaileak. Bakoitzak dagokion auzoko aldizkariak hartu eta, asko behintzat, erosketak egiteko karrotxoaz abiatzen dira banaketa lanean.

Dagoeneko eskuartean daukazu aste-ko aldizkaria irakurle. Ordu horretarako, datorren aste-ko aldizkaria egiteko lana hasita dago. Gorabehera batzuk alde batera, bidea berregitera.

Hobeto konpontzeko

Irakurle ezezik, zuetariko asko, une batean edo batean aldizkariaren laguntzaile izan zarete: gutunak bidaliz, astez asteko artikulua eginez, gai konkretu batzueri buruzko kontuak idatziz, telefonoz deitu eta zerbaiten berri emanez, argazki zaharrak edo berriak ekarri. Ezinbestekoa da zuekiko harreman zuzena aldizkariaren lana ahalik eta ondoen betetzeko. Hori dela eta, horretarako zenbait aholku ondorengo lerrotan.

- Ostegun goizean bidaltzen da aldizkaria inprimategira. Zerbaiten berri eman nahi baduzue, kontuan hartu gutxienez asteazkenerako iragarri beharko duzuela.

- Jendaurreko ekintzak: hitzaldiak, inaugurapenak, prentsaurrekoak... asteazkena baino lehenago eginez gero, aukera gehiago dute aste horretan irteteko.

- Gutunak argitaratzeko arauak bete egin behar dira. Ia astero jartzen ditugu.

- Antolatzen duzuen edozein ekintzaren berri lasai eta denboraz eman gainera. Berdin bapateko edo uste-gabeko txosten edo komunikaturen bat kaleratzen denean, bestela zaila izaten da eta guk hori jakinaraztea.


- Arrasate Pressekin harremanetan jartzeko biderik egokienak eta zuzenenak telefonoak eta faxa dira. Hona-ko hauek: 77 05 65, 77 06 90, 77 09 40 (faxe).

Hankasartze ugari

Zerbait gaizki irteten denean iratxoez hitz egiten hasten dira irrati-lariak, kable eta mikro-en artean bibrazio arrarodun zerbait sartuko balitz bezala. Makina bat kontu irten dira Arrasate Presseko bizitzako zazpi urteotan eta gehientsuenak irakurle-enganana behar bezala iritsi badira ere, behin baino gehiagotan hanka sartzeren bat edo beste egin izan da. Prentsa idatzian ez dago iratxorik. Eta okerragoa dena, hankasartzeak hor gertatzen dira, bueltarako aukerarik ez. Bakar bakarra hurrengo aldizkariko zuzenketa.

Baina ze kontxo! akats gabekorik ez dagoenez, norberaren buruari barre egiteko gaitasuna azaldu behar. Aitor-mena bada, ondorengo lerroetan.

Era askotako hanka sartzeak egin daitezke prentsa idatziaren munduan: gaizki uler-tuak, inprimategikoak, make-tatzerakoan suertatutakoak, ordenagailuan testuak sartzetarakoan ihes egiten duen letratxo hori esaldiaren zentzu osoa aldatuz, kazetariaren irudimenak sortutakoak,



Benetan izango ote da hau Hirune Iribecampos ala Jose Manuel Alvarez?

zuzendariaren despisteak.... Zerrenda bukaezina izango litzateke eta nonbaitetik hasi behar denez, izan zuten garrantzia izan zutelako nabarmenenak aipatetik hasi behar.

AKATS HISTORIKOAK

Bakoitzari berea eman behar zaio. Urtekaria kalera-tu zen 1990. urtean. Urtekar-ian bertan "Nor da nor Arrasaten?" izeneko saila. Izen

piloa bata beste-aren ondoren, ortografikoki txukun txukun jarrita. Zerrenda bukatu eta nor faltako? Xabier Zubizarreta alkatea. Bapatean arrasatearrak alkate barik. Xabierrek berak ez zuen ezer aipatu, baina dei eta gutun bat baino gehiago jaso zen huts nabarmen hura salatu-tuz. Borondate txarrik ez zegoen, baina ez ziren oso egun gozoak izan.

Argazkiek ere sortu dute urte hauetan buruhausteren bat edo beste. Gogoratzekoa da hauteskunde batzuetan hautagaiak ateratzerakoan Jose Mari Velez de Mendizabal EAKo hautagaiaren aurpegiari, EAJko Lorea Le-nizbarrutiaren izena jarri zitzaionekoa, eta alderantziz. 77. zenbakiko orrialde berdinean agertzen zen Euskadiko Ezkerreko Iñaki Arregi, PSOEko Francisco Javier Cendoyaren izenarekin. Bail-larako hautagaiak zirela eta, ez zen aparteko kexarik egon. Hori bai, zuzendu egin zen hankasartzea.

Argazkien arloa utzi barik, aipatutakoa baino nabarmenagoa izan zen 186. zenbakiko Gomendioa sailean Hirune Iribecamposen izenean Jose Manuel Alvarezen argazkia ipintzea, eta inungo gomendio barik gainera. Halakorik! Beno, antzerakoa

izan zen Peduskoren zuzendaritza atera beharrean Zal-dibarko antolatzaileen prentsaurrekoa jartzea.

Arrasateko gazteluaren kontua oraindik jende askok gogoratuko du. 233. zenbakian gertatu zen guztia, gaztelu zaharraren aztarnak aurkitu zirela eta: 1) Gazteluari izena jarri zion Arrasate Presse, "Arrasate" izena. Ez oso orijinala egia esan. 2) Noiz sortu erabaki zen. 3) Estiloa ezarri zion, esistitzen ez zen bat noski. Makina bat gutun iritsi ziren erredakziora erreportai hura argitaratu ondoren, baita eztabaida gordin sortu ere gaiaren inguruan.

Ikaratzeko modukoa 173. zenbakiko Fotozaharrekoa izan zen. Bertan gizon baten abizena gaizki jartzeaz gain, hiltzat jo genuen. Oraindik bizirik zeogela jakiterakoan berak baino susto handiagoa hartu zuen erredakzioak. Horrelakoak ez dira ez berehala ahazten!

Azken akats larrienetarikoen artean, azken Arrasate Presseko zuzendariaren ezkontzarekin suertatutakoa izan zen. Bera Bolibarren ezkondu zen eta gero gonbidatuekin batera Arantzazuko Zelai-Zabalen izan zuen bazkaria. Aldizkariak Dorletan kokatu zuen ezkontza eta Gure Ametsan bazkaria, propaganda doan nonbait. Eskerrak hanka sartzeak ez zuela ondorio txarrik izan.

AKATS ARRUNTENETARIKOAK

Nabarmen nabarmenak alde batera utzita, akats ugari aurki daitezke orain arteko aldizkarietan. Ezinezkoa denak aipatzea, baina ez legoke gaizki bakar batzuk ikustea.

• Hizkuntza oker erabiliaren ondorioz sortutakoak: "txakur batek hiru haur izan zituen", "emakumeen ligak (futboleak)", "fisikoki oso ondo dago (saskibaloia

ARRASATE EXPRESS

Abendua
31

Abenduak 28, 132. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**Iñuxente
iñuxente
txakurrak
buztana tente**

IKER

132. zenbakian,
Iñuxente egunekoak,
aldizkari osoa gezurrez beteta
zegoen, izenetik hasita.

jokalari batengatik)..."

• Hankasartze txikitxoak: 1990eko apirilaren 6an Bisi Bengoa Irakasle Eskolako sukaldaria zela jarri eta Luis Eceiza ikastetxekoa zen benetan.

"ATBtik mundura" izeneko azalean Iban eta Jonen aurpegiak aldatzea.

165. zenbakiko numerazio osoa oker azaltzea.

Zaborra ateratzeko ordua aldatzea, 9etatik 7etara, 262. zenbakian.

**Akatsak
medio, sarritan
erabili behar
izan dugu
gutun salla
oker
emandakoak
zuzentzeko
ahaleginean.**

Aretxabaletako Galartza dorrea XVI. mendekotzat jo, benetan XVI.ekoa denean.

• Ortografikoak, ordenagailuan idazterakoan akatsak egindakoak, esaldiaren zentzua aldatuz:

"Euskeraz irakasten hasi zen Ikastola" jarri beharrean "Euskeraz nahasten hasi zen Ikastola".


"LABek ez du onartzen zerbitzu sindikatua soilik denik" jarri beharrean "LABek ez du onartzen zerbitzu sindikatua denik".

"Ihauteri eguna kolore askoko eguna dela, giro politekoa" jarri beharrean "Ihauteri eguna kolore askoko eguna dela, giro politikoa".

“... zuten bizimodu-
rako egokitzapena” jarri
beharrean “... zurien bizi-
modurako egokitzape-
na”.

**NAHITA
EGINDAKOAK**

Aldizkaria kaleratu
ondoren ikusitakoak
dira orain artean aipa-
tutako akatsak, baina
noizbait nahita sartu
izanda bromatxoren bat
aldizkarian. Zentzu
horretan, ahaztezina da
Inuxente Egun batez
kaleratu zen aldizkaria,
gezurrezkoa erabat.
Zerez zegoen han! Ira-
kurleei ezezik, berta-
koei ere sartu izan zaie
ziriren bat edo beste.
Joxe Aranzabalek
ondo gogoratuko du
oraindik 100. zenba-
kia begiratu zuenean
hartu zuen sustoa. Izan
ere, langileek, inpri-
mategikoekin bat eginik
azal faltso bat prestatu zio-
ten. “Joxe Aranzabal: mi
apuesta, la prensa en vasco”
zioen izenburuak. Gezurrez-
koa zela esan arte buruari hel-
duta egon zen, nola edo hala
aldizkariaren banaketa gera-



**Arantzazu Loidi eta Mikel
Izurategi** Dorletan ezkon-
du ziren domekan eta giro
atseguinean Gure-Ametsa jate-
txean izan zuten bazkaria.
Ezkon -bidaian Lanzarotera


joan dira. Etxe honetako
zuzendaria izan da Arantzazu
hainbat urtetan eta une
pozgarri hauetan zorion bero-
enak zure lankide izan ziren
guztien aldetik.

Albiste honetan izenekin
besterik ez genuen asmatu, eta hori, etxekoak izanda...

tu beharra zegoela esanez. ezkondu zen egunean, baita
Gauza bera egin zitzaion Mikel Irizarri ere, baina opa-

ri gisa, ez beste
era horretara.

Bukaerarik
ez du akatsen
zerrendak. Bisi-
tek eta gonbi-
datuek ere egin
izan dituzte
sarritan. Zenba-
tek ez ote du
deitu “Arrasate
Express da?”
galdetuz, baita
oraindik ere.
Nola ahaztu
japoniar haiek;
hobeto atera-
tzearren argaz-
kilaria makurtu
eta eurak gauza
bera, argazkila-
ria zutitu eta
eurak berdin. Ah!
eta azkena? ederra
egin zuten Er-
tzantzakoek 2.000
pta.ko berriak fal-
tsoak zirela zabal-
duz, itxura denez ban-
ketxetan jende-ilada
luze samarrak sortu
ziren protesta egiteko,
kajeroak ez zien ba bile-
te faltsoak ematen... esan-
dakoa, ez dagoela munduan
akatsik gabeko inor eta Arra-
sate Press ezin salbuespen
izan.



Maisu Arano, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 12 32

ZABALETA

Lurrindegia Opariak



Zorionak Arrasate Press, Zorionak arrasatearrok!

Beñardo Kortabarria

Kolorea sartzea orain dugun erronka nagusia


Beñardo Kortabarria Arrasate Press-eko zuzendaria da martxoaz geroztik. 33 urteko antzuolar honek kazetaritza ikasi zuen Leioan. Beñardok zuzendari sartu aurretik ondo ezagutzen zuen Arrasate Press, hiru urtetan kazetari lanak bete zituen eta. Arrasate Press-ek 300. zenbakia kaleratu duenez zuzendariak balorazio bat egin du eta aurrera begira dauden asmoen berri eman.

— Arrasate Pressek 300. zenbakia kaleratu du. Jaio zenetik gaurdaino ze aldaketak bizi izan ditu?

— Eduki aldetik ez dira horrenbestekoak izan, itxurari dagokionez berriz bai. Informazio lantzeko modua ez da gehiegi aldatu, neutraltasun kutsuaz jarraitzen du eta sail asko hasierakoak dira. Aldaketa nabarmen eta ikusgarriak diseinu aldetik eman dira.

— Arrasate Press ideologia bateko aldizkaria dela esan da behin baino gehiagotan, horren gainean zer duzu esateko?

— Ideia hori ez da zuzena. Hemen denetarikoa jendea dabil, bakoitzak izango du bere ideologia, neuk ere badut nirea baina lanean informazioa kontrastatu eta orekatzen saiatzen gara, albiste aberatsak kaleratzeko. Beste kontu bat kolaboratzaileen iritzia da. Hor ez naiz sartzen. Kolaboratzaileei askatasuna eman behar zaie nahi dutena idazteko, euren testuen



erantzunkina eurek daukate eta. Gainera iritzien tartea herritar guztiei dagoela zabalik esatea gustatuko litzaidake. Inork idatzi nahiko balu atak zabalik ditu. Era guztieta-ko iritzia onartzen ditugula garbi utzi nahi dut.

Bestalde, azkenaldian hainbat gutun heldu da esku-titz guztiak ez ditugula argitaratzen salatuz. Ez da egia. Eskutitzak ezarrita ditugun arauak betetzen badituzte, hau da, benetako izena, helbidea, telefonoa eta NAN zenbakiaz badatoz beti izan dute tokia aldizkarian nahiz eta gero gaitzizenez plazaratu. Anonimoak ezin ditugu kaleratu, gainontzekoekin ez dago arazorik.

— Arrasaten jende asko ez daki euskaraz eta ez dute begi onez ikusten Arrasate Press moduko proiektu bat. Horrek esan nahi du aldizkari mugatua dela?

— Arrasate Press euskararen normalizazioan laguntzeko sortu zen. Gure herrian hizkuntzaren bat txarto badago, hori euskara da. Beraz, aldizkariaren helburua informatzea da, euskaraz informatzea noski. Helburu horiek gaizki ikusten dituen txarto ikusiko du era berean euskararen normalizazioa

— Zuretzat zein izango litzateke aldizkari ideala?

— Batetik diru arazorik ez duen aldizkaria izan behar-

ko luke; bestetik iritziak pisua izango duen aldizkaria, informazioa eta iritzia tartekatzen duena. Jendearengan eragina duena ere bai. Euskara eta bakearen alde zerbait egingo zuena, zerbait egin eta egiten den horrek eragina izan beharko luke.

— Ze aldaketa aurreikusten dira datozen hilabeteetarako?

— Gure ondorengo erronka kolorea sartzea da. Aspalitik gaude horren zain, baina diru arazoak direla eta, ezin izan dugu sartu. Kanean oso zabaldua dago ARKOko langileak primeran bizi garenen ustea, eta hori ez da egia: soldatak txiki samarrak dira, sartzen diren orduak asko, egoitzaren lan-baldintzak txarrak (hotz eta bero jasanezina urtaroen arabera, saguak inguruan, ituginak...). Dena dela, badirudi egoitzarena laster konponduko den arazoa dela.


— Kazetaria izan zinen Arrasate Pressen, orain berriz zuzendaria. Aldaketa handia?

— Zuzendaria izatea ez da botere kontua. Burua gehiago nekatu behar da eta lan-talde egoki bat osatzen saiatu.

Lan-taldearen kontua oso garrantzitsua da gauzak gonoraz egiteko. Horregatik kazetari, teknikari, eta laguntzaileen artean giro egokia egon dadin ahalegintzen naiz, baita ARKOn musutruk lanean ari direnen artean ere. Beste gauza asko baino gehiago balio du lanean gustora ibiltzeak. Jendea gustora badabil produktoan isladatzen da emaitza.

“Hemen bakoitzak du bere ideologia baina lanean informazioa kontrastatzen saiatzen gara, albisteak ahalik eta aberatsen kaleratzeko”

Hitza emanez



EUSKALDUN EGUNKARIA

Denon harrobia

300. zenbakira iritsi da herri aldizkarietako dekanoa den Arrasate Press. Hortaz, ondo irabazi du mantxetaren ondoan, Espainiako zenbait egunkari historikok egin ohi duenez, "herri aldizkarietako dekanoa" esalditxoa jartzeko eskubidea.

Ez zen Arrasate Press kalera irten zen lehen herri aldizkaria, baina bai behin kaleratuz gero gehien iraun duena eta hori meritu gutxi ez izanda, bere ondoren (ez nintzateke asko erratuko "ondorioz" idatzi banu) jaiodiren ia gehienentzat begiratu beharreko ispilua izan da. "Arrasate fenomeno" deitu genuen hark geroztik.

Zorionez, ondorengo asko eta onak izan ditu. Ikasleren batek maisua noiz gaudituko duen zain gaude, ez Arrasate Pressek lidergoan segitzea merezi ez duelako, baizik eta bizitzaren zikloak hala agintzen duelakoan. Non eta, horretan ere Arrasaten ek duen salbuespen izan nahi.

Nagoen lekutik, EGUNKARIAtik alegia, begiratu itakaragarria da Arrasate Press bezalako herri aldizkariak irakurleak "trebatzen" egin duten lana. Euskaraz sekula bi lerro segidan irakurri ez dituen herritarra jarri dute herri aldizkariak euskaraz irakurtzen. Ia konturatu gabe pasatu dituzte/dira ezer ez irakurtzetik egunero zer edo zer irakurtzera. "Etengabeko alfabetatze pasiboa" deitu genezakeen lan iraunkor horrek asko zabaldu digu prentsa nazionalari (EGUNKARIA, Argia, Jakin, Elhuyar...) merkatua. Dextente zabaldu digute irakurle esparrua eta hemendik aurrera gurea da herri aldizkarietatik prentsa nazionalera dagoen zubia eraikitzeko lana diseinatzea eta egitea. Gurea da irakurtzen ohitu berri diren irakurle horiek gure irakurle eta kliente bilatzeko lana. Herri aldizkariak eta, batik bat, Arrasate Pressi esker.

Mila zorion, hortaz.

Martxelo Otamendi,
EGUNKARIAko zuzendaria



ARGIA

Eskualdeko prentsa doako eta euskarazkoaren aintzindari

Gobernu koalizioa osatzen duten alderdi politikoek, hots, EAJ-PNV, PSE-EE-PSOE eta EAK sinatutako akordio programatikoak ezartzen duen moduan, Eusko Jaurlaritzaren kultura politikaren helbururik behinenetakoak hauek dira: batetik, euskararen sustapenaren eta erabileraren aldeko konpromezua berrindartzea, horretarako lurralde bakoitzaren egoera soziolinguistikoari egokitutako hizkuntza politika indarrean jarritz; bestetik, industrializatutako hirietan euskarra poliki-poliki sartzeari, bereziki euskaldun ugarien darduen eskualdeetan eta gazteen artean; eta azkenik, euskararen erabilera sustatzea komunikabideetan eta kultura ekoizpenetan.


Jardunbide hirukoitz horren barruan sartzen da zuen eguneroko lan estimagarria, hau da, eskualdeko aldizkari bat egitea eta euskara eta euskal kulturaren inguruko bestelako ekintzak antolatzea.

Horregatik, zuen aldizkariaren 300. zenbakiaren ospakizun pozgarri honetan, zorionak eman nahi dizkizuet eta, bide batez, animoak ere bai, gaur egun gure herri osoan, beste Autonomi Elkarte eta Europako herrietan bezala, horren zabaldua dagoen eskualdeko kazetaritza doakoaren aintzindari izan den lan horretan jarrai dezazuen. Euskal Herrian zuek izan zineten lehenak, ausartenak, gehien arriskatu zenutenak. Eta zuen merituak izan den hori zuen herriak eta eskualdean bertan egin diren beste ekimen ereduagarrien mailan dago. Arrasatek inork baino hobeto daki ekimen berrien aldeko apustua egiten. Horretan, zuek, eskualde horretako beste herritarren antzera, liderrak izan zarete.

Ia erdia autofinantzatzen den eta sei mila aleko tirada duen zuen aldizkariak informazioa, zabalkundea eta kultura hedatzea ditu helburu. Garaiz erantzuten diozue hurbileneko gizarteak galdetzen duen eskubideari, gertatzen denaren berri eta gertatzen den horrek eguneroko bizimoduan duen eraginaren berri izateko eskubideari alegia. Ez da harriztekoa, beraz, Kultura Sailak hasiera hasieratik lan horri laguntza ematea eta zuen egitasmoaren partaide sentitzea.

Zorionak, bada, eta zuek ereindako hazia barreiatu dadila eta Euskal Herriaren eta euskararen aldeko fruitua ematen jarrai dezala.

M. Karmen Garmendia,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua



Laugarren gizona

Zazpi urte igaro diren arren, gogoan dut nola Jesus Garmendiak deitu zidan Bergarako Udal Euskaltegira esanez ea Arrasatera etorriko nintzen bilera batera “aldizkari bat edo, egiteko”. Bilera AEDn egin zen eta lau lagun bildu ginen. Hantxe hasi zen gerora Arrasate Press izango zena.

Lau lagun haietatik, lehen zuzendaria izan nintzelako seguruenik, neu bilakatu nintzen Arrasate Presseko aurpegi publikoa. Gainerako sortzaileak ez ziren hainbeste agertu. Hala ere, euren lana ezinbestekoa izan zen aldizkaria sortzeko eta iraunarazteko.

Iñaki Mendigurenek euskarari zegozkion irizpideak ezarri zituen aldizkarian. Idatzi, zuzendu, itzuli... denetarik egi-

ten zuen. Arrasate Presseko bigarren zuzendaria izan zen.


JFDT, José Félix Díaz de Tuesta alegia, tresneriaz, dirukontuez eta publizitateaz —zertaz ez?— arduratu zen. Taldeko suhiltzailea. Arrasateko Udaleko Euskara zerbitziburua izanik, badaezpada ez zen larregi agertzen aldizkari ordezkarri moduan. Hala ere, jendeak bazekien burubelarri sartuta zebilela.

Baina, nor zen laugarrena? Laugarren gizona, itzalean geratu zena, proiektuaren sortzailea izan zen, hain zuzen: Jose Mari Eraña. Berak zuzendu zuen AEDn egin genuen lehen bilera hura. Aldizkari bat euskaraz egiteko asmoa azaldu zigun eta ea zer iruditzen zitzaigun galdetu. Taldeko estratega bihurtu zen, begirada urrutien luzatzen zena. Oztopoak aurrikusteko eta saihesteko iaioetasun aparta zuen. Bere eskuhartzea halabeharrezkoa egin zen udalbatzako zinegötziekin eta alderdi politikoeekin hitz egin behar izan zen guztietan. Baita herriko elkarte eta taldeekin izan beharreko harremanak prestatzeko orduan ere. Arrasateko Udaleko idazkaria zen, ordea, eta horregatik, eta bere izaeragatik, bigarren mailan geratu zen beti.

Zazpi urte eta hirurehun zenbaki joan dira eta jende berriak daraman aldizkari berritua dugu Arrasate Press. Horixe da lehen bilera hartan ereindako haziaren fruiturik onena. Zorionak denori!

Joxe Aranzabal,


ARRASATE PRESSEko sortzaile eta lehen zuzendaria



WERU®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterain

**Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotzik, ez berorik, ez
soinurik...**

Arrasate Pressi buruzko 7 iritzi

Herriko elkarte, erakunde, etab. artean zozketa egin eta zazpiti, eskaera berdina: Idatz ezazu nahi duzuna Arrasate Pressi buru.

Denok igualak ote?

Milaka aldiz entzun dugu Arrasate Press herri aldizkariaren aitzindaria izan zela Euskal Herrian. Aitzindari bai, oso ondo, baina orain Arrasate Pressen klonikoak, kopia hutsak, ia herri guztietan ikusten ditugu. Nire uste apalean aldaketa sakona komeni zaio orain A.P-i. Hau da, herri aldizkariaren modelo estandarra baztertu, eta beste bide berri bat jorratu, formatu berri batekin. Ez dakit herritarra ondo informatuta sentituko den ala ez, baina Arrasate mini-medien trinkete-frontoia bihurtu da, non albiste guztiak leku batetik bestera errebotatzen duten, pilota letxe. Gauzak horrela, nik neuk debeteari, kritikari, eztabaidari eta eritziari emango nieke garrantzi gehiago, astean zehar suertatzen diren albiste eta albistetxoak ahaztuz. Badakit hemen ez dagoela debaterako ohitura handirik, eta jendea, gehienetan ez dagoela bere burua bustitzeko prest, konformismoa nonbait. Baina ni saiatu, saiatu egingo nintzateke.

Juan Luis Azkarate,

El Correoko korrespondentsala eta Arrasate Presseko kazetari ohia

Eskerrik beroenak

Ostiral arratsaldeak badu bere xarma berezia, asteko laneko joan-etorrirei agurra eman eta, norberak maite dituen denborapasa aldiatarako une aproposa hasten denean. Horietako bat, buzoia bisitatzean Arrasate Pressekin topo egitea. Izan ere, etxe inguruko edo hurbileko gertaeren berri jakiteko irrika biziz irakurtzen baitugu. Badi-rudi, beste batzuk ere irrikitzen egoten direla, gure buzoia behin baino gehiagotan hutsik aurkitu baitugu. Ikusten denez, berean aurkitu ez duenen batek hartuko zuen... dena den, on dagoila ostiral horretan guk irakurri ez badugu ere, norbaitek irakurri nahi zuen seinalea.

Bestalde, orain, jadanik, herri askotan daude honen antzeko astekariak, baina Arrasate Press hasi zenean, norik pentsatu behar zuen Arrasate bezalako herri batean, hainbeste milaka etxetara bertako berriak euskaraz emango zituen aldizkaria sar zitekeenik? Arrasate, ordea, beste ekintza askotan bezalatsu, horretan ere aitzindari izan da. Eskerrik beroenak merezi dituzte komunikabide hau ahalbideratzeko beren hondar alea jarri duten guztiek.

Bittori Etxeberria

Elkarri

1

2

INGELES IKASIKO DUT!!

Non? **CIMen**

Noiz? **Urtarrilaren 15etik aurrera.**

Nola? **Astean 3 orduko ikastaroetan, oinarrizko mailatik aurreratuenera.**

Eta **GABONETAKO** oparia: matrikula dohainik izena ematen duten lehenengo bostentzat.

 **CIM**
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Araba Etorbidea, 4
Tfnoak. 79 01 32-79 65 54
20.500 ARRASATE



Berriak "urrutitik" ikusten

Arrasateko Batxilergo Institutuan, liburutegian bertan dauzkagun aleek duten erabilera arrakastatsua ikusiz gero, ez zaigu zaila egiten adieraztea, benetan, halako ekimenak onuragarriak direla, ez bakarrik euskara bul-tzatzeko, Arrasate herriko elkarbizitza eta batasun giroa sendotzeko baizik.

Astero astero, iraunkortasunez, 300. alera heldu zarete-nez jada, euskarari eta hiritarren arazo, ekintza eta ardurei halako gunea eskaintzea benetan interesgarria izanik ere, ziur gaude batzutan ez zaizuela erraza gertatuko, gazteleraz eta amerikar filmeen eredu zositako dagoen lurralde eta gizarte honetan.

Gure ikasleek, guztiek euskaraz jakin baldin badakite ere, egia da erabilera eskasaren arazoa hor dugula, gizarte osoa-ren islada bestalde, eta horrelako aldizkariak esparru hori lan-tzeko baliagarriak direla argi dugu, are gehiago, beraientzat erakargarriak diren berri, gida eta idazkiak ekartzen baditu.

Esan behar Institutuko berriak herri guztian ezezik, zuen aldizkarian ere, nolabait "urrutitik" ikusten dituzuela irudi-zen zaigula zenbaitetan. Arrasate ertz batean kokaturik gau-dela eta, herri erdira heltzea batzutan zaila gertatzen omen zaigu. Agian, hainbeste irakurle izateak, edo guztiengana hel-du nahi izateak edukina hein batean baldintzatzen duela zuek guk baino hobeto jakingo duzue.

Beraz, gure aldetik Zorion beroa eta ea 600. alea ateratzerakoan, gutaz gogoratzen zareten berriz.

Iñaki Odriozola,
Arrasateko Batxilergo Institutua

3

Hizki salda goxoa

Hasteko, zorionak eman nahi genizkioke Arrasate Press gure herriko astekariari sortu zenetik 300 ale kaleratu ditue-lako. Ale bakoitzarekin milaka pertsonak euskaraz irakur dezan lortu du. Ale bakoitzak gure herriaren berri eman digu, gure herri-ra hurbildu gaitu. Alez-ale eta astez-aste gogoz hartu izan dugu esku artean. Batzuk Inkesta atsegin dute; beste batzuk gurago dute Erreportaia; futbito zaleek erdial-deko orrialdeak maiteen; nork ez du Kultura salda probatu?; Agendari erreposoa egitea ere ohizkoa da eta Txutxumutxuak gustoko ez dituenik ez dugu ezagutzen.

Irakurle gisa ezezik, kultur elkarte garen aldetik ere oso baliagarria iruditzen zaigu Arrasate Press. Elkartearen eta herri-tarren arteko komunikazio tresna aparta da. Gure ekintza, ihar-duera eta bilakaeraren berri emateko ezin hobea; batzarren bat egin behar dela, klaseak hasiko direla, afariren bat anto-latu dugula, zuzenean jotzen dugu astekarira herriari jakite-ra eman diezaion. Deialdiez gain unean-uneko ekitaldi eta irteerak ere kultura saldaren osagarri izan dira, gatz eta bera-katz puntu egokiarekin.

Guk trikitixa salda egiten jarraituko dugun bezala, zuek ere hizki salda goxoa egiten jarraitu urte luzetan. Aurrera!

Liher Larrea,
Arrasateko Trikitixa

4



SIKOL

Olarte, 31
Tfnoa: 79 89 32
ARRASATE

**EGUN HAUETAN
AUKERA ITZAZU
OPARIAK SIKOLEN ETA
ZUK ERE OPARI BAT**

Ikuspuntuen falta

ELaren aldetik orokorrean Arrasate Press aldizkariari buruz oso balorapen positiboa egiten dugu.

Baieztape horretarako bi gauza azpimarratuko genituzke: 1) Aldizkaria bakarrik euskaraz egoteak gure ustez esanahi handia du etorkizunean erabat euskaldundutako herri bat lortzeko. 2) Aldizkariaren izaera zabala eta parte hartzailea, herritar guztiendako ateak irekiz.

Edukiari dagokionez, berriak alde batera, garrantzi handia ematen diegu aldizkariak jasotzen dituen azterketa edo iritzi artikuluei. Zentzu honetan, behar bada, sindikal-gintzatik ikusita langileok jasan dugun egoera sozio-politiko arriskutsuari buruzko artikulua edo ikuspuntu garrantzitsuak falta zaizkio. Autokritika ere egin beharra dugu, egunero lanak askotan ez digu eta aldizkariari garrantzi handia izango luketen gaiak eramateko aukerarik ematen.

Ondorioz, sindikatuen aldetik aldizkaria hobetzeko ahaleginak egitea espero dugu. Labur esanda hori izango litzateke aldizkariari buruz zer pentsatzen dugun galdetzerakoan erantzungo genukeena.

Julian Balanzategi,
ELA

Alderdi onak, alderdi eztabaidagarriak

Lizarra Elkarteari zerbait idazteko eskatu diozuenez, hona hemen gure ikuspegia

Alderdi onak:

- Herrian eta inguruan gertatzen denaren berri ematea.
- Astero bizi bizi eta ogia estegitik bezala bero bero ateratzea ostiralero.
- Euskara polita eta landua erabiltzea, "mondra-goeko" euskalkia ere alditan erabiliz.
- Herriko biztanleen eta erakundearen ikuspegitik eta iritziak dexente ondo jasotzea. Arazo hau, oso inportantea izanik, uste dugu asmatu duzuela.
- Herriko "marginazio egoerak" aintzakotzat hartzea, eta horietaz hitzegiteko lotsarik ez izatea.

Gailurraren bila

Arrasate Press aldizkaria 300. alera heldu da, beste era batera esateko, ia 7 urte daramatza mondrauetarren esku artean herriko berriak zabaltzen. Aldez aurretik zorionak bertan zaudeteno, lan egin duzueno eta proiektuan sinesten zenueno. Ea, gutxienez, beste horrenbeste irauten duen. Besaide Mendizale Elkarteari Arrasate Pressek gure jarduera eta ekin-tzak Arrasateko herritarrei eta kanpoan daudenei helarazteko bide zuzenena eskaintzen dio. Astero gure etxeetara heltzen den aldizkari hau modu azkar eta eroso batean irakur dezakegu arreta berezia jarriz guri inporta zaizkigun berrietan; puntu honetan datza Arrasate Pressen arrakasta nere ustetan. Egun hauetan lore asko jasoko ditu gure aldizkariak, hala nola, euskarazko prentsa lokalaren aitzindaria dela, kazetarien harrobia, euskara normalkuntzarako tresna egokia... Hau honela izanda, gure aldizkari honek, bidea orain arte bezain arin eta dotore egiteko, ez litzuke ahaztu behar:

- Kalitatea lantzeko ahaleginari eustea. Finantziaketa egokia behar du jakina.

- Pluraltasuna. Denon aldizkaria baita.

Mikel Arana,
Besaide Mendizale Elkartea

Alderdi eztabaidagarriak:

- Jendeak, guk alegia, "debalde" delako ez "gurea bezala" hartzea.
- Debalde izateak bere alderdi ona badu, baina "oinak lurrean" edukitzea oztopa dezake, batez ere antolatzaileen oinak.
- Noizbait azal bat oso gusto txarrekoa izan da.
 - Gure erakundearen propaganda, Lizarrarena alegia, dexente ordaindu behar izan dugu.

Oso zaila den arazo bat:

Euskara hutsean izanik, Arrasateko biztanlego elebarrei justizia egiten zaio? San Andresetik egiten dut galdera hau. Zerga guztiak ordaintzen dituzte...

Juan Jose Goenaga,
Lizarra Elkartea

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**FLORIS
MONICA**

Koroak • Eskontzarako lore sortak
Landareak • Lore gunek

Mondragones kalea, 9 • Tfnoa: 79 12 30 / 79 04 84 • ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Nola aldatzen diren gauzak...

Ume txiki bat bezala jaio zen Arrasate Press orain 7 urte. Denborak aurrera egin ahala, ume bat letxe, astez aste aldatuz joan da Arrasateko aldizkaria. Ezin esan sortu zenean baino hobea ala txarragoa den, orduan baino umeago hala helduago, eskuartean harterakoan asperdura ala zirrara sortzen duen.... Desberdina da, besterik ez.

Lehenengo Arrasate Press-a kaleratu zenean, nekez antzemango zion edo norrek gaur egun duen itxura izango zuenik. Izan ere, lehen zenbaki hura hirurehunaren honekin konparatuz gero, berdintasun gutxi aurkitzen da. Izpiritua, gogoia, borondatea, helburua, tresna... berdinak dira, baina itxuraldatuta agertzen dira.

DISEINUA NABARMEN

Zazpi urte hauetan itxuran jasan ditu aldizkariak aldaketa ikusgarrienak, eta horren erakusgarri onena aldizkaria-

ren azalak beraiek dira, barruan hori erraz somatzen bada ere.

Lehen Arrasate Press-ari begirada bat emanaz gero, mantxeta edo aldizkariaren izena azpimarratu behar aurrena, more iluna zen eta. Gai nontzean, esan behar informazioa bertan hasten zela, berri bat azpimarratuz eta beste txiki mor-do bat emanaz. Azpialdean publizitatea zerman.

Hamahirugarren zenbakiak dagoeneko aldaketaren bat bazekarren berarekin. Sortu eta denbora gutxira, argi dagoenez. Mantxetako morea askoz ere argiagoa zen ordurako, eta berri bati garrantzia emateaz gain, aldiz-

KAIXO ARRASATE

Astekari berri bat jaio da herri mailako prentsaren munda, ARRASATE PRESS, euskara hutsean, zuri hobeto informatzeko asmo sendoarekin.

AED-ren eskutik plazartzen gara, Mondragoeko udalaren laguntza ezin hobeari esker. Gure herriari merezi duen komunikabidea eskaini nahi diogu. Astekari irekia eta bateratzailea izatea nahi dugu. Horretarako euskara aukeratu dugu, geure herriaren elementurik integratzaileena izan daitekeelako. Arrasateko dendari, saltzaile eta anuntziatzaileek horrela ulertu dute, eta publizitate ugari eskaini digute.

Horrekin batera ARRASATE PRESS irrakurterraza, atsegina eta praktikoa egin gura dugu. Egitasmo honen inguruan sortu dugun taldea gaztea da eta ilusioz betea.

Gogoan izan, astero, astero zure etxeko buzoian ARRASATE PRESS aurkituko duzu, dohainik, merezi duzulako. Berrondegizula!

Arrasate Press-en lehenengo zenbakian ateratako agurra.

1988ko abenduaren 2an.

karian aurki zitekeena-ri buruzko sumariotxo bat jartzen zen. Hasieran bezala, publizitatea zuen azpian.

Ondorengo aldaketa garrantzitsua ikusi ahal izateko apurtxo bat denbora gehiago pasa zen. 55. aldizkarian dagoeneko beste era bateko azala ikus zitekeen: mantxeta bera, argazki handi bat, kua-drotxo bat sumario gisa eta betiko publizitatea.

Aurpegi gehiago erakutsiko zituen ondorengo aldaketak, aurrekotik berrogei zenbakira. Tituloetarako letra tipo berria erabiltzen hasi zen orduan, gerora aldizkari gehienek kopiatuko zutena. Horretaz gain, elkarrizketatua ateratzen zen astero.

Aldaketa sakonena 164. zenbakian ederki asko ikus daiteke. Publizitatea kendu zen azaletik eta argazkiak ia osotasunean betetzen zuen azala. Mantxeta berria egin zen eta gai nagusiaz aparte, aldizkariaren barruan agertzen ziren beste batzuk azpimarratzen ziren.

Ondorengo aldaketa ere ez zen gau-erdiko ahuntzaren



Marivi
LORADENDA

Alfonso X jakintsua 5 (Grupo San Juanen)
Tfnoa. 79 15 59
ARRASATE

Mitartegarai

JATETXEA

GURUTZE MUJIKAREN pintura erakusketa
Abenduaren 5etik urtarrilaren 7ra

Areantza auzoa • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 17 51

estula izan. Azalean kolorea sartu zen hasteko, mantxeta erabat aldatu, eta titular batera mugatu zen, gai nagusia-ri zegokiona.

Azken boladako aldaketa, berriz ere mantxetarena izan da, azaleko gainaldean jartzen den barratxoaz gain. Gainera aipagarria da, marrazkiak, argazki bat baino gehiago ateratzea, ordenagailu efektuak... gehiago erabiltzen direla orain, azalari mugimendu gehiago emanaz. Emaidza: aldizkari-tik aldizkariara nortasunik galdu barik desberdintasun handiak egoten direla. Bizitasuna hitz batean.

JOAN ZIREN SAIL HAIK

Itxurari dagokionak dira aldaketa nabarmenenak, baina batek baino gehiagok gogoratuko du seguruen gaur egun aldizkarian ez dauden hainbat sail. Gaiak agortzea, kolaboratzaileak nekatzea, arrakasta handirik ez izatea, egiteko zailtasun handiegirik sortzea... izan daitezke sail bat beste bategatik ordezkatzeko arrazoi normalenak. Edozein modutan, sail batzuk gogorarazteko eta egileei buruzko aipamen bat egiteko aukera aparta da berau.

"Luma zorrotza" urteetan zehar J. M. Velez de Mendizabalek egindako artikuluak ireki zuen aldizkaria. Langile fina Josemari, ardurara iragarria erakutsiz ez zuen eta sekula hutsik egin.

"Famauen ahotik" izeneko sailak arrakasta itzela izan zuen iraun zuen bitarte-

an. Herriko hainbat kontu zahar ateratzen zituzten Jesus Mari Garai eta Estepan Plazaolak, bertako euskaran idatzita eta herritarren berbak jasoz. Jende askok faltan botako du. Seguru!

"Ez dakizula" datu harri-garriak emateko tokia zen. Joxe Aranzabalek egiten zuen eta berak argitaratu zituen batek baino gehiagok bestaldara izan zitezkeela pentsatzen zituen gauzak.

"Podiuma" kirolariei eskainitako tartea izan zen. Igande goizero mendira denborapasa joaten den laguntik hasi eta txirringarritza ogibide dutenen arterainoko pertsonaien bizitza ezagutzeko aukera eman zuen sail honek. Herriko kirolari gehienak eta kanpotik etortzen ziren asko irten ziren sail honetan, kirol-artxibo ederra osatuz.

Kiroletan bezala, musika munduan zerbait egiten zute-

nek izan zuten bere txokoa Arrasate Press-en, "Batuta" izenekoa. Hemen ere podiumeko izpiritua bera nagusi, ikasten ari den neska/mutikotik hasi eta omenaldia jasotzen zuen organujoleraino.

"Gomendioa" denborapasan orrialdean irteten zen. Herritar batek asteburuan egiteko zerbait gomendatzen zien besteek, normalean berak atsegin zuen zerbait. Itxura baten arrakasta dextena izan zuen.

Aurrekoekin batera berdin egin zitezkeen beste hainbat sailekin, zerranda ia amai-gabea da eta. Horrek ordea, luzeegi joko luke eta akaso nahikoa izan daiteke sailen izenak ematea, norbait kanpoan uzteko arriskua hor badago ere. Ea zerbait esaten dizueten: Artea, hankamotz, hazi eta hezi, osasuna, sukaldaritza, musika, teknoberri, bertsolaritza, txirringarria, euskara, tontorrez tontor,

zelebrekeriak, zeuk sortua, ikus eta entzuz, gusto baduzu, prentsaren begia, hileko agenda, fonotobela, fotoberriri, auzo herriak, autoaren jabea, txiki txoko, igarkizunak, txio-txioak, udalaizpe-tik, antzinakoak, baserriz-baserri, penaltiak....

KOLABORATZAILE GANORABAKO HAUEK...

Sail asko. Eta askoren arduradun eta errudun laguntzaile-kolaboratzaile sarea. Guztiak gogoratzea ia ezinezkoa, baina batzueri aipamentxo bat egiteko ezinbestekoa, jendeak hobeto ezagutu ditzan.

Juan Bautista Agorria, gurutzegramak egiten dituen. Matematikoa, Pressen bildutako gurutzegramak agortu orduko hurrengo hila-beterako mordo batekin etortzen da. Berakata baino finagoa.

ARRASATE PRESS
MONDRAGOEOKO KONTSUMO- BULEGOA IN-DARREAN
ARRASATEKO OMIC (Kontsumatzaileen Informazio-ko Udabulegoa) orain hasi da zuzen Arrasaten, Halburu hirukoitza du: kontsumo espektriko salaketak bidaltzeko, in- formazioa nabar...
KAIKO ARRASATE
Asteleke berri bat jaso da...
ARRASATEKO OMIC (Kontsumatzaileen Informazio-ko Udabulegoa) orain hasi da zuzen Arrasaten, Halburu hirukoitza du: kontsumo espektriko salaketak bidaltzeko, in- formazioa nabar...
ARRASATEKirolak
Kontzeizaino kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 794612

ARRASATE PRESS
Pobrezia, urrutira joan beharrik ez dagoenean
ERAIN ETA HEMEN
ARRASATEKirolak
Kontzeizaino kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 794612
HOTZ - BERO
Kantaportas, 2 Tfnoa: 79 70 98 79 67 54 ARRASATE
zabro kamari

0. zenbakia.

13. zenbakia.

Jesus J. Giraldo

Liseriketa aparatua

- Lagun-Aro • PREVIASA • Foru Aldundia • Partikularrak

Astelehenetik ostiralera arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

Gabon jai zorionsuak guztiontzat.

Loramendi kalea, 6 Eguzki dorrea, 2.B Tfnoa: 79 04 14 ARRASATE



55. zenbakia.

Aste Gazte egiten dutenak. Azkenean lortu da asteazken arratsaldean baino lehenago erredakzioan edukitzea.

Amaia Jauregiarraburu, abizen luzekoa eta bere usteak uste ere horrelakoak izaten dira, prentsatuta sartu beharrekoak.

Parrokoa. Kolaborazioak Montte tabernan uzten ditu, taberna horrek atsedena egiteko bezperako gauean betik. Hurrengo egunean tabernakoei ate joka ibili behar Josemarirena argitaratu nahi bada.

Iker Barandiaran. Sarritan atera dugu ohetik astelehen goizean.

Danel Goikolea, komikiaren egilea orain gutxira arte. Komikiak mundialak, baina beti gogorarazi behar ekartzeko zuela. Behin edo bitan, testua aldatu, eta errepikatuak kaleratu izan dira.

Mikel Irizar. Denetarako



95. zenbakia.



191. zenbakia.

prest: banketxean lanegin, musikaz idazten hasi zen, gero liburuei buruz, orain ikuspelagian parte hartzen du, telebis-tako programa bat egiten ari da... nola moldatuko ote da?

Jabier Ozaeta, fotografo

afizionatu profesionalena. Beti prest argazki-kamara hartu eta esku bat botatzeko. Bere objektiboaren menpe egon direnek ondo dakite gainera nola mane-jatzen dituen.

Mokordo ezizenaz sina-

tzen zuena ere aipagarri. Patxi Montero zen.

Ihintza ezizenarekin sinatzen zuena. Inork ez daki nor zen.

Harri Zاراia = laugarren gizona?



164. zenbakia.



286. zenbakia.

ARRASATE HOTELA

Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16


beinke

Elektroinjekzio Zerbitzua

ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispero kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

GERTU



INPRIMATEGIA

300 ale ARRASATE PRESSekin*

(*) **ERRAZ ESATEN DA:**

- 1.500 kilo tinta
- 23.000 kilo paper berziklatu.
- 25 metrotako altuera eta 20 zentimetroko diametroko 322 zuhaitz beharko ziren paper hau berziklatua izango ez balitz.
- Hamaika dorre (11) Eiffel-en alturakoak (321 m.) jasoak izango genituzke ale guztiak elkarren gainean jarriko bagenitu.
- Dagoeneko Madrilen aurrera gindoazke (585 km.) ale hauek bata bestearen jarraian kolokatuz joango bagina.
- Futbol zelaia berriz, 400 izango ziren estaliak paper guzti hau lurrean zabaldu ezkerok.

Umezaintza

25 urte umeeekin lanean

Itxaro Zubillaga

Arrasateko Umezaintzak zilarrezko eztaiak bete ditu aurten. 1970. urtean jaio zenetik aldaketa ugari ezagutu du eta gaur egun irakasle, guraso eta kolaboratzaileak osatutako kooperatiba da. Orik 6urtera arteko 200 neska-mutilen beharrei erantzuteko 21 langilek osatzen dute Umezaintzako lan-taldea. Goizeko 7.30etatik arratsaldeko 6ak arte atekak zabalik izaten ditu San Josepen dagoen haur eskolak eta txiki txikitatik umeak hezitzeaz gain, autobus eta jangela zerbitzuak eskaintzen ditu.

Umezaintzak gaur egungo egoerara heltzeko hainbat hesi eta arazo gainditu behar izan ditu.

1970. abenduaren 16an Rosa Mari Lopez Arazuegi eta Elisa Maiztegiren bultzadaz Auzo Lagunen menpe jaio zen ume txikiak hezitzeko zentrua. Bi emakume hauek Udalak utzitako Iturripe baserriko lokaletan 6 umerekin egiten zuten lan. Hasiara gogorra izan zen. Umeak etxetik kanpo bidaltzea ez zegoen ondo ikusita. Baina emakumeak lanean hastean Umezaintzarekiko gizartearen jarrera erabat aldatu zen eskaintza handituz. Umeen kopurua asko hasi zenez Iturripeko baserri-tik Estazio zaharrera pasa zen

egoitza.

1975-80epea oso garrantzitsua izan zen Umezaintzarako. Garapenaren prozesua hasi zen da eta haurtzaindegi izatetik hezkuntza ematen duen zentrua izatera pasatu zen. Auzo Lagunetik alden-du ere garai horretan egin zen eta irakasle-gurasoen arteko kooperatiba bihurtu zen. Bestalde, irakasleek formakuntza sakona lortu zuten eta euskarako tituloaren jabe egin ziren. Eusko Jaurlaritzatik eskolaurrea emateko baimen ofiziala jaso zuten eta Ikastolen federazioan sartu zen zentrua. Sasoi horretan Bailerako beste ikastetxeekin batera Hezibide Elkartea osatu zen. Pedagogia arloan aurrerapausoak ematen baziren, baita instalazioen aldetik ere.

1980an Arrasateko Udalak utzitako Altamirako lokaletan kokatu zen. Urte horretan 103 ikasle ibili ziren. Umezaintza osoak bost urte igaro zituen Altamiran.

1885ean ikasle kopurua 145era igo zenez, berriz ere trasladoa egin zen Arrasateko Udalak eta Hezkuntza Sailak utzitako San Josepeko moduloko lokaletara. San Josepen 3-6 urteko umeak zeuden bitartean, 1-2 urtekoak Altamiran jarraitu zuten.

Urte batzuk beranduago Arantza Lejaragak hartu zuen zentruko gidaritza "Zuzendari sartu nintzenetik aldaketa asko eman da. Aipagarriena egoitza aldaketa izan da. Zenbait proiektu aurkeztu ondoren azkenean Umezaintza osoa San Josepera ekar-



tzea lortu genuen. Egoitza berrira etorri ginenean seaska zerbitzua jarri genuen. Beraz, Ourtetik 6 urteko neskamutilekin ari gara lanean. Bestalde, 1990an Logse-a onartu zen. Horrek esan nahi du 0-3 zikloa hezkuntza bezala hartzen dela eta bide batez baldintza batzuk bete behar ditugula irakaslego eta azpiegitura aldetik". Zuzendariak adierazitakoaren arabera Udalaren, irakaslego eta gurasoen lana garrantzitsua izan da azken urteetako aldaketak aurrera ateratzeko. "Pedagogia aldetik Logse-a irten zentrik zentruak bere hezkuntz proiektua egin du"



Umezaintzako umetxoak bazkalorduan formal formal jatekoaren zain.

**GAUR EGUNGO
EGOERA**

Gaur egun bi diru iturri

ditu Umezaintzak. 3-6 ziklorako Eusko Jaurlaritzak eta Udalak ematen du dirua. 0-3

urtera arte Udalak eta Foru aldundiak. " 0-3 ziklorako Eusko Jaurlaritzak ez du diru-

rik ematen indar guztiak oinarritzko heziketan jarri dituelako. Diputaziotik oso diru

Karmele Zenarruzabeitia Hogeita bat urte daramatza Umezaintzan

Karmele Zenarruzabeitiak 21 urte daramatza Arrasateko Umezaintzan. Denbora horretan neska mutil ugari pasa da andereño honen eskuetatik eta gertutik bizi izan ditu Umezaintzak izandako aldaketak.



— Hasierak nola gogoratzen dituzu?

— Auzo Lagunen barruan zegoen Umezaintza. Nik neuk bertako irakaslea izateko aukera izan nuen eta urte batetik hiru urtera arteko neska mutilekin egiten genuen lan. Baina berehala konturatu ginen Umezaintzak ez zuela tokirik Auzo Lagunen barruan. Ekinaren ekinenez, Umezaintza beste ikastetxeak bezalako hezkuntz erakunde bat izatea lortu zen. Behin hori lortuta beste ideia bat bururatu zitzaigun: zentrua zergatik ez zabaldu 6 urterainoko umeentzat. Horrek jakina hainbat baldintza betetzea eskatzen zuen. Besteak beste, magisteritza eta euskarako tituloak lortu. Ideia horren alde geundenok prestatzen hasi ginen.

— Orain irakasten dena eta lehengo-

ak badu zerikusirik?

— Irakaskuntza ez da gauza itxi eta geldia. Urteak urtera aldatuz doa. Hasieratik hona gauza asko aldatu da Umezaintzan eta baita beste hezkuntzetan ere.

— Eta umeak ?

— Umea berez beti da ume, aldatu dena gurasoen ikuspuntua da. Lehen gurasoak autoritarioak eta zuzenagoak ziren, orain berriz beste sistema batera pasa gara. Umeak maitasuna behar

du eta horrek umei ezetza ezin esatera eraman gaitu. Askotan gurasoak zerbait berria lortu guran, gure iparra galdu dugu eta umeak gure gainetik jarri dira. Gaur egun, dena dela, erreflexio bat zabaltzen ari da gai honen gainean.

— Talderen bat gogoratzen duzu bereziki?

— Talde asko gogoratzen ditut baina duela urte t' erdi izan nuena oso berezia izan zen. Eskolaurre guztia nirekin egin zuten eta beharbada horregatik dut gozoan.

— Anekdotarik?


— Anekdotak baino baserrietara egiten genituen irteerak ditut buruan. Oraingo eta lehengo irteeren baldintzak ezin dira parekatu. Gaur egun baldintza guztiak ditugu. Lehen baldintza egoki barik gure nahia nagusitzen zen. Ahalegin berezia egin behar genuen bidaiak ahalik eta merkeenak antolatzen, jendea bilatu eta baldintza onetan joateko. Proiektu txiki horiek oso garrantzitsuak ziren.

gutxi jasotzen dugu eta kos-tua hain handia denez kuo-tak handitu behar ditugu. Horrek ere ez du gastua estal-tzen, horregatik beste diru itu-rrri batzuren bila gabiltza". Seaska ziklorako dirua bila-tzea da Umezaintzakoen ardura handienetarikoa gaur egun, baina beste arazo bat ere ikusten ari dira dagoeneko "Gipuzkoan asko hedatu da ikastetxeetan bi urteko gelak zabaltzea. Gela horiek zabal-tzerakoan haur eskola 0-2 urtera arte geratzen da. Hori arriskutsua izan daiteke haur eskolen etorkizunerako".

Seaska zerbitzua zabaldu zutenetik eskaintza asko uga-ritu dela dio Arantza Leja-rragak "Lehen kalea, familia eta orohar gizartea ziren eskola onenak umeentzat bai-na gaur egun etxeak ez dau-de umeak hezitzeko egoki-tuta, bestela nola ibiltzen garen ikustea baino ez dago, ez ikutu hori, ez igo horra... Kalea arriskutsua bihurtu da. Horrela bada, kalean eta etxe-an lortzen ez den heziketa Umezaintzan bilatu behar da. Heziketa hori lortzeko umeen ahalmen guztiak ate-ratzen saiatzen gara, sozia-lizazioa lortzeko bideak bila-tzen eta bide batez beste umeekin bizi izaten erakus-ten zaie". Hori guztia lortzeko txiki txikitatik didaktika bidez umeen zentzuak garatzen eta eguneroko harremanak lan-tzen ahalegintzen dira ira-kasleak.

LORTU BEHARREKO HELBURUAK

Umezaintzak azken urte-otan aurrepausu handiak eman baditu ere, epe motzera beste hiru helburu lortu nahi ditue "0-3 ziklorako insti-tuzioren bat inplikatu nahi dugu dirulaguntza lortzeko, helburu hori lehenbait lehen betetzea gustatuko litzaigu-ke. Bestalde, dauden eska-era guztiei erantzuna eman. Ume batzuk kanpoan utzi



Mario Egües

IKASLE OHIA

Mario Egües 1972ko uztaile-an sartu zen Umezaintzara, bi urte egin behar zituenean. Mariok ez du zehaztasunez gogoratzen bertan bizi izandakoa baina hainbat gauza bai.

"Hasiera batean Iturripen egon nin-tzen baina ez dut ia ezer gogoratzen. Ondoren tren geltokira pasa gintuzten. Siesta botatzen genuen bazkalostean, koadro gorri eta beltzdun koltxoiak datozkit burura. Bazkaria Elisin-ek ekartzen zigun eta bere izena oihukatuz itxaroten genion. Indio eta bakeroetara jolasten genuen eskola-ri buelta ematen zion patioan edota atze-aldeko aterpean euria zenean. Mendi ize-neko txakur bat ere izan genuen baina ni ez nintzen txakurrarekin jolastera ausar-tzen. Biltegiara txertatzera eramane genu-neko eguna ere gogoratzen dut, geroago ihes egin zuela esan ziguten andereñoek baina badirudi norbaitek akabatu zuela. Umezaintza ondoan egoten ziren ijitoak ere gogoratzen ditut, beldur handia genien. Azken egunean andereño Mertxek Alme-nera joan behar genuen batzuri jada nagu-siak ginela esan zigun. Gerora bai Alme-nen bai beste ikastetxe batzutan entzun ditut horrelako hitzak baina lehendabi-ziko aldiz bost urtekin entzun nituen Ume-zaintzan".

ditugu plaza guztiak beteta zeudelako baina horrelako-rik gerta ez dadin beharrezko neurriak hartuko ditugu. Ins-talazioak onak izan arren,



Liher Larrea

IKASLE OHIA

Liher Larrea Umezaintzako biga-rren promozioko ikaslea izan zen. 18 hilabeterekin sartu zen eta 6 urteak bete arte Estazio zahar-rean zegoen Umezaintzan igaro zituen. Liherrek bertan bizi izandako urte-etatik gauza puntualak gogora-tzen ditu.

"12 bat neska mutil geunden eta bi irakasleen izenak gogoratzen ditut Mer-txe eta Karmele. Karmelek oraindik Ume-zaintzan jarraitzen du. Normal jantzita joa-ten ginen, baina behin bertan amantala jartzen genuen. Egia esateko ez dut gogoratzen klasean egiten genuena bai-na marrazkiak gutxienez bai, etxean Ume-zaintzan egindako marrazkiak ditut. Hobeto gogoratzen dut atsedendian egi-ten genuena. Kanpoaldean karramarro-ak bilatzen genituen eta txakur bat zego-ela ere gogoratzen dut. Ez dakit zein zen bere izena baina jolas batean ibiltzen ginen txakurrarekin. Gainera, behin galdu egin zen eta zeharo arduratuta egon ginen, azke-nean bilatu genuen. Anekdotak txiki hori ez dut inoiz ahaztuko. Umezaintza garai-ko ezagunak baditut, baina kuadrilako-rik ez. Bestalde, batzutan bertan jaten nue-la gogoratzen dut bestela amamaren etxe-ra joaten nintzen eta egia esateko jatekoa ez zen oso ona izaten".

kanpoaldea egokitu nahi dugu. Azkenik datorren urte-an Umezaintzako patrimo-nioa Udalari emango diogu. Udalak dirua jarri zuen erai-

kuntza berria ordaintzeko eta orduan erabaki genuen guztiz osatuta zegoenean Udalaren eskuetara pasako zela."

Euskadiko Karate Txapelketan Arrasateko sei ordezkari izango dira

Euskadiko Karate Txapelketa burutuko da zapatuan Iturripeko kiroldegian goizeko 10etatik aurrera kadete eta junior mailan. Arrasaten burutzen den bigarren Euskadiko txapelketa izango da eta antolatzaileak Saioa karate taldea eta karateko Euskal Federakuntza dira.

Arrasateko sei ordezkari izango ditu: Isidoro Ugarte, honek iaz Espaniako txapelketan hartu zuen parte eta laugarren tokian sailkatu zen. Iker Vitoria, Euskadiko txapelketan hirugarren tokia eskuratu zuen. Eric Martin bigarren sailkatu zen. Hiru karateka hauek esperientzia dute, txapelketetan parte hartutakoak dira eta. Beste hiruak Unai Valor, Iker Zabarte eta Jonatan Zalazar. Hauek esperientzia gabekoak izan arren, oso itxaropentsu da-



80 neska-mutil elkartuko dira Iturripeko kiroldegian Karate txapelketan parte hartzeko

de eta lan ona egin dezaketela uste dute.

Iñaki Muñoz entrenatzaileak esan duenez Arrasateko taldea Bilbo, Gasteiz eta Durangokoarekin batera

goialdean ibil daiteke. Karate talde sendoa ei dago Arrasaten eta orain arte lortutako emaitzak ikusita pozik egoteko arrazoiak badaudela pentsa ei daiteke.

Txapelketan 80 neska-mutil inguru izango dira, Gipuzkoak, Bizkaia eta Arabakoak. Neska-mutil hauek Kumite eta Kata modalitatean egin beharko dute lan.

XVII. Santamas txapelketa domekan

Santamas herri krosa dagoeneko ohitura bihurtu da Arrasaten eta XVII. edizioa domekan burutuko da goizeko 11etatik aurrera. Beti bezala banan banako frogak eta koadrila artekoak egingo dira. Guztietan Deba Garaiko atleta eta koadrilek har dezakete parte eta izenematea egun eta toki berean egingo da, Herriko Plazan. Koadrilen arteko frogan parte hartzeko hainbat arau bete behar dute partehartzaileek. Gizonezkoen koadrilen sailkapenari dagokionez, koadrila bakoitzeko lehen bostek



puntuatuko dute. Talde garalea lortutako bost postuen batuketan puntuazio txikiena lortzen duena izango da. Koadrila bi edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, inplikaturako koadrilen bostgarren lehen sailkatua hartu-

ko da kontuan. Koadrila bakoitzeko federatu bakarra onartuko da, kontuan izanda puntuatuz gero, hamar puntuko zigorra izango duela. Emakumezko koadrilen arteko sailkapena ere izango da, beti ere, hiru emakume talde

edo gehiago agertzen badira. Emakumeetan koadrila bakoitzeko hiru lehenek puntuatuko dute. Irteera Olarte kalean izango da eta helmuga Herriko plazan. Sariei dagokionez, bi mailatan banatu dira. Banakako mailan lehenak garai kurra jasoko du, lehen beteranoak ere izango du saririk eta baita lehen emakumeak ere. Koadrilen artekoan lehenarentzat saria bildotsa izango da, bigarrenak lau untxi jasoko ditu eta hirugarren taldeak bost oilasko. Emakumeen artean lehen koadrilak lau untxi.


ORAIN ARRASATEN

LIZARRALDE KIROLAK

Bizikleta munduko merkatu zabala
aurrerantzean Arrasaten bertan:




COLNAGO



PINARELLO

SCOTT



UNIVEGA

« KASTLE



TREK

DOCTOR BOLIVAR, 5 • Tel. 79 91 47



ARRASATEKO UDALA

ARRASATEKO UDALA ERE
PÖZTEN DA
ARRASATE PRESSEK
ARGITARATU DITUEN
300 ALEENGATIK.

ESKERRIK ASKO ETA ALE ASKOTARAKO!

ZORIONAK
ARRASATE PRESS!

ZORIONAK
ARRASATE!

Urbina Maltzagak eta Askatuakek derbia

Urbina Maltzaga eta Askatuak taldeek elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak larunbatean arratsaldeko 7.30etan Donostiako Carmelo Balda kiroldegian. Derbi guztiak bezala emozioa eta lehia ez da falta izango neurketan. Talde biak garaipenaren bila irtengo dira baina bakarrak lortuko ditu hain garrantzitsuak diren puntuak. Samaniegok ezingo du Iñaki Arrue kantxaratu, lesionatuta jarraitzen duelako, ezta Andres Gutierrez ere. Biak jota daude eta aste batzutarako baja izango dira. Gai-nontzekoek ez dute arazorik, jokatzeko gertu daude. Donostiako taldean hiru jokalarik aipatu behar nahi eta nahiez: Treg Lee amerikarra, Larrea eta Pazos. Hirurek egun ona badute min handia egin dezakete. Dena dela, Urbina Maltzagako jokalariek ondo ezagutzen dute aurkariaren jokua eta jokatzen ez uzteko neurri guztiak hartuko dituzte. Talde biek Itu-



Derbi interesgarria donostiar eta arrasatearren artean.

urripen jokatu zutenean Askatuakek 72 eta 75 irabazi zuen. Orduan Treg Lee jokalaria trebeena izan zen eta 25 puntu lortu zituen. Une honetan Donos-

tiako taldea 5. dago sailkapenean 24 punturekin. Urbina Maltzaga berriz, 11. da 22 punturekin, jokatutako partiduetatik zazpi irabazi ditu.

Eskubaloikoek garaipena behar zulotik irteteko

Rosa Lasagabasterren mutilek Ereintza taldea izango dute aurkari zapatuan arratsaldeko 6etan Iturripen jokatu den norgehiagokan. Arrasateko taldeak derrigorrez garaipena behar du azken tokitik gorantz egiteko. Ereintzaren kontra ez du erronka samurra izango Arrasateko taldeak, aurkariak bost partidu irabazi eta hiru galdu ondoren, sailkapenean 4. toki betetzen

du eta. Ondo kokatua egoteaz gain, talde sendoa, esperientziaduna da eta ondo ezagutzen du arrasatearren jokua.

Neurketarako entrenatzaileak bi baja izango ditu; Txuko eta Fran. Biak lesionatuta daude eta ezin dute jokatu. Iraola ere ikututa dago baina zapatutako gertu egotea espero da.

Lasagabasterren jokalariek entrenamendu gogorak egin dituzte astean eta

batez ere defentsa eta eraso landu dute aurkariaren jokua kontrolatu ahal izateko.

Denboraldia hasi zenetik arrasatearrek emaitzei begira zorte handirik izan ez duten arren, itxaropentsu daude. Jokalariek eta entrenatzaileak esan dutenez gaur egun bizi duten egoerari buelta emateko lanean ari dira eta emaitza hobekoa laster etor daitezkeela koan daude.

Rugbykoek Tolosaren kontra Garagartzan

Rugbyko seniorrek Tolosaren bisita jasoko dute zapatuan arratsaldeko 4etan Garagartzan. Denboraldiko laugarren partidua izango da eta Tolosa taldea kategorian berria dela kontuan hartuta Patxi Gorosabelen jokalariek ez lukete arazorik izan behar garaipena lortzeko. Jubenilek bestalde, Hernanin jokatuko dute bertako taldearen kontra. Partidua zapatuan izango da arratsaldeko 4etan.

Mondrak 17. jardunaldia jokuan

Zorroza eta Mondra nor baino nor izango dira Zorroza futbol zelaian domekan goizeko 11.15etan. Arrasateko jokalariek nahi eta nahiez irabazi beharko dute. Azken boladan hiru partidu galdu dituzte jarraian eta berriro 19. tokian daude 14 punturekin. Zivojecivek hiru baja garrantzitsu izango ditu. Haritz Zabaleta lesionatuta, Aritz Arabaolaza txartelak direla eta, ezingo du jokatu eta Juan Carlos Moreno; honi asteartean apendizitisa jota ebakuntza egin zioten.

Mondrako emakumeak eta Elgoibar lehian

Emakumeek goi mailako partidua jokatuko dute Elgoibarren kontra Atxabalpen zapatuan arratsaldeko 3.30etan. Mondrak neurketa irabaziko balu lehen postuan sendotuko litzateke eta tituloa eskuratzeko aukera handiak izango litzuke. Mondrautarrek jokatutako hamahiru partiduetan 70 gol sartu dituzte eta bost jaso. Partiduan Paki Romero jokalaria ohiarri omenaldia egingo diote.

Jon Sarasua


“Diskoa, fauna bat baino, bestiario bat dela esan digute kazetari batzuk”

Jon eta Aitor Sarasua anaiek “Fauna txiki bat” diskoa kaleratu berri dute. Hainbat gai aukeratu eta bakoitza animalia batekin identifikatuz, musikatutako 12 bertso-sorta kritiko sortu dute. Animalia bakoitzaren ikuspuntu desberdinaren arabera himalayismoa edota funtzionarien mentalitatea kritikatu dute bertsolariak.

— Zer dela eta “Fauna txiki bat” diskoa?

— Duela urtebete Durangoko azokan egin ziguten eskakizun baten ondorioz sortu da disko hau. Pianoarekin batera bertso idatzi batzuk egin eta kantatzeko eskatu ziguten. Ideia polita iruditu zitzaigun eta lanean hasi ginen. Hamar gai hartu eta hamar bertso-sorta egin genuen. Bertso-sorta horiei lotura emateko “fauna” bat sortu genuen. Gaiak kazetaritza, lurrarekiko maitasuna, internazionalismoa, funtzionarismoa eta beste asko ziren eta animalia batekin lotu genituen: kazetaritza txakur lehialarekin, errefuxiatuak hontzarekin... animalia bakoitzarekin gai bakoitza tratatzeko aitzaki bat sortu genuen. Gure hasierako asmoa emanaldi bat egitea zen, baina Durangokoaren ostean, beste leku batzutatik deitu ziguten eta azkenean 14 emanaldi egin genituen. Diskoa ateratzeko aukera proposatu ziguten eta ezetz esan genuen baina azkenean animatu eta ELKAR argitaletxearekin grabatu genuen.

— Beraz, bertso musika-tuak egin dituzue, ez?



— Bai, gure asmoetari-ko bat bertso musikatuekin esperimentatzea zen. Bertsoaren kantatzeko modua errespetatuz, bertsoa musikatzea nahi genuen; hau da, bertsoak egin eta horiei egokitutako musikabat jarri. Askok kanten luzeerari gehiegi begiratzen diote, luzeegia bada irrati etabarreran jarriko ez dutela pentsatuz. Guk ez diegu bertsoen luzeerari jaramonik egin, gure asmoa ez da diskoa komertzializatzea eta.

— Ze instrumentu erabili

duzue diskoan?

— Zuzeneko emanaldietan pianoa, baina diskoan bibolina, kitarra, pianoa, fagota, tronpa eta biolontxeloa erabili ditugu. Guztira 12 bertso-sorta dira eta bakoitzak nortasun berezia dauka, hau da, animalia bakoitzarekin ez da sekula musika forma berdina erabiltzen. Ez dugu gaur egungo erritmo modernoetan sartzerik nahi izan eta horregatik ez dugu baxurik eta bateriarik erabili. Xumetasunean oinarritu gara eta emaitzarekin gustora gaude.

.....

“Ez diegu bertsoen luzeerari jaramonik egin, gure asmoa ez da diskoa komertzializatzea eta”

— Gaien tratamendua dela eta, jaso duzue kritikarik?

— Kazetari batzuk, diskoa, fauna bat baino bestiario bat dela esan digute baina nik ez dut uste hain kritikoak izan garenik. Asko komentatu da Himalayako hartz baten ikuspegitik himalayismoari egiten diogun kritika. Mendebaldeko aberatsok dirua daukagu eta, hemengo mendiak txiki geratu zaizkigunez beste toki batzuetara joaten gara konkistak egitera. Hori publikokoki bultzatzea eta adieraztea ez zaigu ondo iruditzen eta horregatik kritikatzeko dugu diskoan. Mendizale askok esan digu zer-bait, Inurrategi anaiek adibidez, baina ez modu txarrean. Jakina, ez da oso erosoak lagunak gure kontra jartzea baina bertsolarioi beti gertatzen zaigu hori, gure etsaiak gain, gure lagunak ere kritikatzeko ditugu eta. Kazetarien bertso sortarekin ere izan dugu kritikarik.

— Zergatik?

— ETBko lau kazetarien izenak aipatu genituen bertsoetan eta egunkarietan zer-bait artikulua agertu zen gure kritika kritikatu.

— Bihar Arrasaten eskainiko duzue “Fauna txiki bat” emanaldia. Zer aurreratuko zeniguke?

— Ez dugu diskoko kalitate berdina eskainiko, pianoa izango da eta instrumentu bakarra. Juan Luis Lekunberrik joko du pianoa. Oso ondo konpontzen gara berarekin eta musikalki mundiala dela uste dugu. Emanaldi sinplea izango da baina polita.

AEDko "Arrasate 95" lehiaketak: finalisten aukeraketa eginda

Honez gero aukeratu daude AEDko lehiaketetan finalista geratu diren izenak. Aurtengo partaidetzari dagokionez iazkoaren aldean modalitate batzuetan igo eta beste batzuetan jeitsi egin dela aipatu behar da. Ipuin sailean iaz 162 lan aurkeztu ziren, aurten 134; poesian iazko 16 lanen aldean aurten 10 aurkeztu dira; bertso paperetako partaidetzak ere behera egin du, iaz 27 eta aurten 17. Komiki lehiaketa izan da partaidetza gorakada handiena izan duen saila, iaz 21 komiki baino ez ziren jaso, aurten berriz 48. Argazki, diapositiba eta bideo sailean 13 lan aurkeztu dira eta Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren sariketan 11.

Partaidetza aldetik AEDk balorazio oso positiboa egin du eta dagoeneko, urriaren 31an lanak entregatzeko epea amaitu zenetik, finalisten zerrenda ezagutzera eman da.

Finalistak

Poesia sailean Maider



lazko irabazle batzuk.

Osak eta Ainhoa Zenigoina ndiak lortu dute finalera pasatzea. Bertso-paperetan Edurne Unzuetak, Koldo Balanzategik, Ane Zabalak eta Ainara Otamendik; Argazki lehiaketan Agustin Goenagak, Antonio Murillok, Juan Carlos Murillok eta Patxi Xabier Zubizarretak; Diapositiba sailean Gaizka Olabarrietak eta Josu San Miguelek eta komiki sailean Eber Arregik, Mikel Ezkurrak, Leire Fernandezek eta Iker Vicen-

tek lortu dute finalerako txartela.

Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren sariketako finalistak Xabier Artola eta Joseba Osa izan dira.

Epaimahaikideek esan dutenez, izugarri igo da argazki, diapositiba eta komiki lehiaketetako kalitate eta partaidetza kopurua. Komiki lehiaketan 14 urtetik beherako gaztetxoak izan dira lan gehien aurkeztu dutenak eta epaimahaiaren iritziz, ondo

landutako komikiak jaso dituzte.

Argazki eta diapositiba sailean aurkeztutako lanek ere harrিতuta utzi dute epaimahaia. Partaideek asko landu dute teknika eta motibo originalak aukeratu dituzte. Argazki eta diapositiben kalitatea ere izugarri igo ei da.

Sari banaketa hurrengo asteazkenean, abenduaren 20an egingo da Monterron jauregian arratsaldeko 7etik aurrera.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Hogeitabost urte. Ez dira gutxi ez, haur-eskola batentzat. Denbora horretan auskalo zenbat jolas, negar, borroka, farre-algara egin den Umezaintzak izan dituen egoitza desberdinetan, zenbat bata zikinduko ziren, zenbat kanta ikasi.... Ezin bertatik pasa diren ume guztien argazkirik jarri orrialde bakar batean. Aukeratu egin behar. Behin aukeratzan hasiaz gero,

orain hogeitabost urteko argazkia hautatu dugu. Izan ere, bertan agertzen da Umezaintzatik pasa zen lehen neska-mutikoen promozioa. Majo hazita egongo dira honez gero...

Argazkia Iturripeko egoitzan aterata dago, 1973. urtean noski. Bertan agertzen direnak honako hauek: Ezkerretik hasita eta goian, **Ander Egües,**

Nerea Aranguren, Leire Zubizarreta, Marisol Agirre (irakaslea), **Jose Simon eta Mike eta Josu Goñenetxe** birkiak. Behean, **Eneritz San José, Liher Larrea, Onintza Andres, Naxel Nalde, Nuria Muñoz, Susana Lete, Saioa Belategi eta Severine Corin.** Zorionak eurei eta Umezaintzako 25 urteak nolabait sentitzen dituzten guztiei.

Arreta
handiko sukaldea

UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

Maria Angeles Gonzalez

"Arrasate" bideo-klubekoa

• **Zein da jaso duzuen azken pelikula?**
"Milagro en la ciudad".

• **Dendako pelikula denak ikusi dituzu?**
Ez, baina gehienak bai.

• **Melanie Griffith ala Antonio Banderas?**
Antonio Banderas.

• **Zine zuzendari bat?** Roman Polansky.

• **Ze ordutan oheratzen zara?** Gutxienez goizeko ordu batean, etxean oso berri-tsuak gara eta.

• **Banda sonoro bat?** "La misión" pelikula-koa.

• **Dendan daukazuen pelikula zaharrena?**
"El cartero siempre llama dos veces" eta "El expreso de medianoche".

• **Zer egingo duzu gabon zahar gauean?**
Etxean familiarekin egon.

• **Zer eskatu diozu Olentzerori?** Ezer ez, sorpresak jasotzea gustatzen zait.

• **Badaukazu telefono mugikorrik?** Ez.



• **Kirolari bat?** Marino Lejarreta.

• **Gehienetan ikusi duzun pelikula?** "Pretty Woman".

• **Pelikula zaharrak ala berriak?** Onak badi-ra edozein.

• **Zinezalea zara?** Oso.

• **Zenbat bazkide dituzue dendan?** 3.360.

• **Gustatuko litzaizuke elurra egitea?** Bai, asko.

• **Horoskopoa seinua?** Tauro.

• **Aktore eta aktorea bat?** Alfredo Landa eta Carmen Maura.

• **Ibili zara Bilboko metroan?** Bilbotarra naiz baina ez naiz ibili oraindik.

• **Beroki luzeak ala motzak?** Motzak.

• **Gaztaina erreak ala egosiak?** Erreak.

• **Asko alokatzen dira pelikula erotikoak?** Bai, gehien aloka-tzen direnak dira.

• **Gizonek ala emakumeek alokatzen dituzte gehiago?** Gizo-nezkoek.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea

- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:

**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• ESAERA •

“Kontuan hartzeoak
dire ergelen iritziak,
eurak gehiengoa dira
eta”


TOLSTOI

• JEROGLIFIKOA •



Nolako pilota atera du Retegik?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1.Landriscini biolontxelistaren izena. 9. (Ald. Tesalonikaren beste izena. 10. (Ald.) Itsasoan ugari. 11. Deitzearen ekin-tza. 12. Mataza eginez haria bildu. 14. Zerbait diruaren ordainez lortu. 15. Neu. 16. (Ald.) Melodia. 19. Tximista.

Bertikalak 1.Bizeten opera. 2. Beirazko hormak dituen urtegia. 3. Atzizkia. 4. Aberastasun. 5. Insomnio. 6. Emakume izena. 7. Sodioa. 8. Astun bihurtu. 13. Harridura adierazteko hitza. 17. Donostiako disketxea. 18. (Ald.) Toledoko ibilgailuetan.

• HOROSKOPOA •

Aries Ikusmira handia sortzen dute zure txisteeek.

Taurus Autoa hartu eta nora zoaz? Munduko azken muturrera?

Gemini Laguntzea ondo dago, baina tontongoia izatea ez da komeni.

Cancer Dena gaizki ulertzen duzu. Begiak zabaldu eta ondo entzun!

Leo Bapatean negarrez, segituan irri-fartsu. Zer zara zu?

Virgo Buruko mina ematen dizu aldamenekoak? Mailua hartu eta...

Libra Noiz idatzi zenion azken esku-titza? Gogoratu ere ez?

Scorpio Bilboko burtsari begira bizi arren ez zara aberastuko.

Sagittarius Berriz negarrez? Noiz arte jarraituko ote duzu horrela.


Capricorn Atzera egin eta konturaturako zara lehen lagunak zenituela.

Aquarius Barkatu, baina oso usain txarra duzu.

Piscis Gabonetan ondo pasatu ohi duzu. Aurten ere horrela izango da.

Etxe-Aundi

Torreauro, 9
Tfnok: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI




Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Anna de Codorniu

TELEBISTAREN TXOKOA

“Santamasak 95” programa berezia ostiralean

Uterto bezala, aurten ere Santamas eguneko gorabehera guztien berri emango dizuegu zintzo zintzo Arrasate Telebistan. Horretarako programa berezia prestatu dugu eta programa hori ostiralean ikusi ahal izango da zuen etxetan. Aurkezle lana ostiralero asteburuko eguraldiaren prebisioa ematen duen Beñardo Kortabarririk eta Eider Otxoak egingo dute, beraz, ziur programa dibertigarria izango dena. Beñardo eta Eider egun osoan zehar azokan, kalean eta jai giroan ibiliko dira, kalean bertan hainbat elkarrizketa eginez.



PROGRAMAZIOA



15 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
 21.30etan
Astebete

18 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
 21.30etan
Mondrasport

19 Asteartea

19.30etan
Marrazki bizidunak
 20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
 21.30etan
Barrelekaixoka

20 Asteazkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
 21.30etan
Zinea

21 Osteguna

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
 21.30etan
Dokumentala

22 Ostirala

“Santamasak 95”
 programa berezia

KOMIKIA

ARRASATE PRESS 300 ALE PROFESIONALTASUNEZ LAN EGITEN

Faltsuak kolore biziagoa du eta ez du zerbakinik biletaren aurpegian. Zinta magnetikoa ere oso markatuta du eta atzealdean duen lorearen erdialdea gorri kolorekoa da zuria izan beharrean. Benetako biletekin konparatzeko hor jarri dizkizuegu akatsak marratxo grisen artean. Egia esan profesionaltasun gutxiarekin egindako lana.

BANCO DE PAMA

DAS MIL PESETAS

HAUEK BAI FIDAGARRIAK HAUEK...

DEUSTU. Ixe-ixa komiki taldea.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxeko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxeko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
 Tfnoa: 79 68 94

SOLUZIOAK

Horizontala: 1. Carolina, 9. Aki-nolas, 10. Ru, 11. Del, 12. Matzartu, 14. Frost, 15. Ni, 16. Unifod, 19. Oimaz-
Bertikala: 1. Carmen, 2. Akuario, 3. Ri, 4. Ondasun, 5. Loezina, 6. Ili, 7. Na, 8. Astundu, 13. To, 17. Iz, 18. Or.
Jeroglifiko: Bizi-bizita.

Etxebizitzak

- **Makatzenan etxebizitza salgai.** Eguzkitsua, 3 logela, jantokia, sukalde, ganbara eta igogailuaz. Tfnoa: 79 56 98.
- **Etxebizitza salgai Roneon** (Garibai kalean). Tfnoa: 79 85 79. Dei egin guez.
- **Aretxabaletako Solohaundikalean** etxebizitza salgai. Tfnoa: 79 46 25.
- **Bi oheko logela alokatzen da** . Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua salgai San Andresen.** Guztiz jantzita eta berogailuarekin. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garajea salgai Altamiran.** Tfnoa: 79 70 70.
- **Pisua salgai Erdialdean.** 90 m². Tfnoa: 79 42 13.
- **Garaje itxia alokagai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisua salgai Erguinen.** Tfnoa: 77 02 01.
- **Pisua salgai San Andresen.** 65 m² ditu. Tfnoa: 79 53 50.
- **Biltegi bezala erabili daitekeen lokala alokagai merke merke.** Kalealdean dago eta 34 m² ditu. Tfnoa: 79 20 48.

Lana

- **Injinerutzako 1. mailako fisikako klaseak** hartuko nituzke. Tfnoa: 71 50 72. Goizez deitu.
- **Emakumea lan egiteko gertu.** Etxeko lanak edo umeak zaindu. Tfnoa: 79 74 92.
- **AEK-k EGArako irakaslea behar du.** Dei egin 77 03 69 tfnora.
- **Euskarazko 2. eta 3. urratseko klaseak** ematen ditut 7etatik 8etara. Tfnoa: 77 04 98.

• **Euskaraz, ingelesez,** gazteleraz eta beste hizkuntzatan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.

• **Umeak zaindu** edo denda baten lan egingo nuke. Dei egin eguerdietan edo gaueko 10etatik aurrera. Tfnoa: 79 95 92. Rakel.

• **Kanguro lana egingo nuke.** Gauzez edo egunez eta nahi dituzun orduak. Tfnoa: 79 43 79. Leire.

• **Neska gertu umeak edo gaisoak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 92 86. Ainhoa.

• **Neska gertu etxeko lanak egin** edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.

• **Etxean, dendan...** edozein lanetarako gertu. Tfnoa: 79 76 45.

• **Lurra barnizatu** (barniz ekologikoarekin) eta parketa jartzen dut. Eskatu aurrekontua konpromezu barik. Tfnoa: 71 50 72.

• **Neska prest umeak zaintzeko** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 96 10.

• **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.

• **Latinezko klaseak jasoko nituzke.** Tfnoa: 79 94 92. Dei egin arratsaldeko 7etatik aurrera. Pilar.

• **Klinikako eta geriatriako laguntzailea** pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 39 09.

• **Emakume euskalduna prest umeak** edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lana egiteko. Tfnoa: 79 07 73.

• **Ingeleseko klase partikularrak ematen dira,** esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 28 98.

• **Sukaldari lana egiteko gertu.** Tfnoa: 79 04 53 edo 13 36 76.

• **Arratsaldetan umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko neska gertu. Tfnoa: 77 07 58.

Salerosketak

• **Bisoizko berokia salgai.** Estrenatu gabea. Tfnoa: 79 45 86. Montse.

• **Turbo Keroseno berogailua salgai.** Bi bonbonaduna. Berri berria dago. Tfnoa: 79 03 67.

• **Zibro Kamin Turbo** kerosenozko berogailua salgai. 40.000 pta. Tfnoa: 77 04 61.

• **Motorrean ibiltzeko txamarra ia berria salgai.** Gorria, txuria eta beltza. 50 taila. Prezioa: 25.000 pta. Tfnoa: 79 22 19.

• **Trabesiako skia egiteko botak salgai.** Koflach Veluga 43-44 zenb. hiru aldiz erabilita. 12.000 pta. Bolle MicroEdge II eguzki betaurrekoak ski edo txirrinduan ibiltzeko aproposak. 4.000 pta. Tfnoa: 79 02 10. Asteburutan.

• **Hiru urteko fosterrier txakur emea salgai.** Baku-nak eta jarrita ditu. Tfnoa: 79 99 84.

• **Volkswagen Passat diesela edo antzerako ko-txea erosiko nuke.** Egoera onean eta merkea bada. Tfnoa: 77 09 40.

Denetarik

• **Egunero Gasteiza joaten naiz** goizeko 8etan autoz Lekua dut, beraz, etorri nahi baduzu eramateko prest nago. Tfnoa: 77 02 74.

• **Giltzak zituen txandal urdin bat** (Astora) desagertu zen Zaldibarko futbito txapelketan. Norbait tek berriren bat izanez gero deitu 79 30 76 tfnora.

• **Abenduaren 8an betaurreko graduatuak galdu** nituen Urkulun. Tfnoa: 79 97 51. Jose Ramon.

• **Giltza batzuk galdu nituen** San Andresetik Erdiko Kalerako bidean. Estutxe berde baten barruan daude giltzak. Tfnoa: 77 06 51. Blanca.

Aste Gazte

Lana

- Euskal Herriko Unibertsitateak hainbat lanpostu kaleratu du. a) 14 artxibo, biblioteka eta museo laguntzaile. b) 22 administrari laguntzaile. c) 49 menpeko. Epea: urtarrilak 17.
- Trapaga-Trapagaran Bailerako Udalak, honako lanpostu hauen deia egin du. a) Administrari laguntzaile bi. b) hiru administrari. c) Gizarte laguntzaile bat. d) Hirigintzako teknikari bat. e) Diruzaintzaile bat. f) Kultur sustatzaile bat. Epea: abenduak 20.
- Berrizko Udalak, euskara

teknikari bat behar du. Epea: abenduak 21.

Ikastaroak

- Mankomunitateak, abenduan hasita eta apirila arte, langabetuei zuzenduta honako ikastaroak eskaintzen ditu. a) Dekorazio eta etxeko arropen joskintza. b) MIG-MAG-TIC soldadura. c) Informatika teknikoak. d) komunikazio kudeaketa eta datu baseetarako atzipena. e) iturgintza. f) kaleko altzarien eta ekipamenduen mantenimendua. g) etxeko lisaketa. Izenematea:

mankomunitateko edo eskualdeko udal enplegu zerbitzuetan, abenduaren 5etik 22ra. Plaza mugatuak.

Lehiaketak

• "Amodiozko Gutunen" IV. Berrigara lehiaketa. 1981ean edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DINA-4 orritan eskuz zein makinaz idatzita aurkeztu ahal izango dira. Lanen luzeera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Epea: urtarrilak 16.

"Gaztetasunak gizakia iragartzen du goizak eguna bezala"

JOHN MILTON.
OLERKARI BRITANIARRA



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

Jose Aranzabal

Iturriotz, 15

Tfnoa: 79 15 16

E
L
E
K
T
R
A
T
R
E
S
N
A
K



*Aitzindarien zaporea
geroaren ikusmena*

Jose Aranzabalena



*zerbitzuan kalitate
eta traturik onena*

S
U
K
A
L
D
E

A
L
T
Z
A
R
I
A
K

Bañez Doktorea, 2

Tfnoa: 79 18 92

OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile eskusiboak, aldamenetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 atecetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea eskusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.
OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL 


TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.